

2022

3. hiruhilekoa

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA ETA OGASUN  
SAILA  
*Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA  
Y HACIENDA  
*Dirección de Economía y Planificación*



## EAEko ekonomiaren hiruhilabetekaria

LABURPENA .....	3
EKONOMIAREN INGURUNEA .....	5
EAE-KO EKONOMIA .....	9
Ekoizpena eta enplegua .....	9
Barne eta kanpo eskaria .....	14
Prezioak, soldatak eta kostuak .....	21
Arlo publikoa .....	25
Arlo finantzarioa .....	27
Aurreikuspenak .....	33

## Irudien aurkibidea

Munduko ekonomia. BPGa (I) .....	5
Munduko ekonomia. BPGa (II) .....	7
Enpleguaren bilakaera .....	12
Etxebizitzaren hipoteken bilakaera .....	31
2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (I) .....	37
2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (II) .....	39

## Taulen aurkibidea

Eskaintzaren aldagaiak .....	9
Jardueraren adierazleak .....	10
Eskariaren aldagaiak .....	14
Kontsumo eta inbertsioaren adierazleak .....	15
Esportazioen helmuga .....	17
Inportazioen jatorria .....	20
Kontsumoko prezioen indizearen banaketa .....	21
EAEko kontsumoko prezioen indizea .....	23
Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak .....	24

Lan kostuak .....	24
Tributu itunduen bilakaera (urtarrila-abuztua).....	26
Adierazle monetario eta finantzarioak (I) .....	28
Adierazle monetario eta finantzarioak (II) .....	29
Kreditu eta gordailuak.....	32
Ekonomia aurreikuspenak.....	33
Espainiako ekonomiarako aurreikuspen ekonomikoak (2022ko iraila) .....	35
EAEko ekonomiarako aurreikuspenak hiruhilekoka (2022ko iraila) .....	36

## LABURPENA

Ukraina eta Errusiaren arteko gerrak munduko ekonomiaren bilakaera baldintzatzen jarraitzen du. Munduko BPGan duen pisua nahiko txikia den arren, gatazkak ezegonkortasun handia eragin du energiaren eta lehengaien merkatuetan, eta inflazioaren tasak hamarkadatan ikusi gabeko mailetara igo dira. Eragile ekonomikoen ziurgabetasuna eta banku zentral nagusien politika ekonomikoaren erantzuna, interes tasak etengabe igotzen ari baitira, herrialde garatueto jarduera ekonomikoa hozten hasi da. Testuinguru horretan, EAEko ekonomia urte arteko tasan %5,0 hazteko gai izan zen bigarren hiruhilekoan, euroaren eremuko batez bestekoa (%4,1) baino tasa handiagoa baita, nahiz eta Espainiako ekonomiak lortutako baliora (%6,8) iritsi gabe. Aipatzekoa da Europako motorra (Alemania) gehiago ahultzen ari dela eta %1,7 baino ez dela hazi bigarren hiruhilekoan.

Bigarren hiruhilekoan EAEko ekonomiak lortu zuen bultzada handiak ez du ezkututzen hazkunde erritmoan moteltze bat gertatzen ari dela, sektore nagusi guztietara hedatzen dena. Zehatz-mehatz adierazita, balio erantsia moteldu egin zen: aurreko hiruhilekoko %6,0tik bigarren hiruhilekoko %5,4ra, alegia. Industriak oso balio esanguratsua eskuratu zuen, urte arteko tasa %6,1 izan baitzen, baina azken datuen arabera, udako hilabeteetan sektore horren jarduera galgatu egin da, eta hori inguruko herrialdeetan ere gertatzen da. Kostuak handitzea, interes tasak igotzea eta ziurgabetasuna dira industrian jarduera hobea izatea eragozten duten arrazoietakoz batzuk.

Zerbitzuek hamarren batzuk apaldu zuten beren hazkunde erritmo sendoa, %5,6raino, 2021ean lortutako batez besteko balioetik (%5,8) oso hurbil dagoen tasa baita. Hiru jarduera taldeetatik, merkataritza, ostalaritza eta garraioari dagokiona izan zen gehikuntza tasa biziena eskuratu zuena, covid-19a kontrolatzeko ezarri ziren mugikortasuneko murrizketak erabat kendu zirelako. Horrela, atal hori %14,1 hazi zen, lehen hiruhilekoko datua gaindituz. Bestalde, sektore publikoari lotutako jarduerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) %1,3ra jaitsi zuten emaitza, pandemian zehar egindako ahaleginaren ondoren. Azkenik, gainerako zerbitzuek %3,0ko igoera izan zuten.

Eraikuntzak balio erantsia %1,5 hobetu zuen bigarren hiruhilekoan, eta horrek areagotu egin zuen aurreko aldietan erakusten zuen moteltzeko profila. Sektore honetan ere nabarmena da lehengaien garestitzea nazioarteko merkatuetan izaten ari den eragina, martxan jar litezkeen obra batzuen errentagarritasuna zalantzan jartzen baitu. Ildo horretan, etxebizitza berriak egiteko bisak murriztu egin dira azken hilabeteetan, eta lizitazio ofiziala tasa negatiboetara igaro da, sei hiruhilekotan gorakada handiak izan ondoren.

Eskariaren ikuspegitik, une honetako ezaugarriak aipagarriena kanpo eskaria BPGaren hazkundeari egiten ari zaion ekarpen handia da. Hain zuzen ere, EAEko ekonomiaren bigarren hiruhilekoko hazkunde guztiaren ia erdia kanpo saldoaren ekarpenaren ondorio izan zen, esportazioen hedapen handiari esker, eta inportazioek, aldiz, intentsitate txikiagoarekin egin zuten gora. Zehatzago esanda, esportazio errealak %13,7 hazi ziren bigarren hiruhilekoan, aurreko hiru hiruhilekoetan izandako tasaren oso antzekoa. Bestalde, inportazioak %8,5 gehitu ziren, aurreko aldi baino ia bi puntu gutxiago.

Barne eskariak nabarmen arindu zuen hazkunde erritmoa, aurreko %3,2tik %2,4ra. Hala eta guztiz ere, beraren bi osagai nagusiek eutsi egin zioten aurreko goranzko joerari, eta administrazio publikoen kontsumoa izan zen apaltze horren erantzulea, lehen hiruhilekoan hazkunde apala (%0,6) izatetik bigarreanean jaitsiera esanguratsua (-%3,1) izatera igaro baitzen. Pandemiaren ondoren normaltasun egoerara itzultzeak aurreko bi urteetan egin ziren ezohiko gastu batzuk kentzea ekarri du. Kontsumo pribatuak (%3,0) eta kapital eraketa gordinak (%5,0), aldiz, lehen hiruhilekoaren antzeko tasak eskuratu zituzten.

Inflazioak ekonomia garatuen ahulgunea izaten jarraitzen du, eragile ekonomikoek har ditzaketen erabakiak baldintzatzen baititu. Euskadiren kasuan, abuztuko KPIa, ezagutzen den azkena hori baita, %10,3an kokatu zen, eta badirudi goranzko bidea gelditu egin dela. Hazkunde horren zati handi bat elikagaietan eta energian kontzentratzen da, merkatzen hasi baitira, baina denbora beharko da gainerako produktuetera eramateko.

Ekonomiaren martxa onaren ondorioz, enplegu sorrera garrantzitsua izan zen bigarren hiruhilekoan, eta aurreko urtearen aldean 35.500 lanpostu inguru sortu dira. Horri esker, langabezia-tasa %8,5era jaitsi da. Hala eta guztiz ere, enpleguari buruzko azken datuek, Gizarte Segurantzako afiliazioei buruzkoak baitira, iradokitzen dute azken hilabeteetan lanpostu berriak sortzeko gaitasuna zertxobait apaldu dela.


2022-2023 aldirako aurreikuspenen eguneratzeak apenas berrikusten du hamarren bat beherago aurtengo hazkundea, baina beheranzko zuzenketa garrantzitsua egiten du, ordea, 2023ari dagokionez, inguruko ekonomietarako egin diren berrikuspenen ildotik. Hala, egungo egoera makroekonomikoak adierazten du EAEko ekonomia %4,3 haziko dela aurten, aurrez aurreikusitakoa baino bi hamarren gutxiago, eta %2,1 datorren urtean, hau da, martxoan aurreikusi zen balioa baino bi puntu gutxiago. Datu horiek inflazioaren bilakaera on baten mende egongo dira datozen hilabeteetan. Hala ere, inflazioak egoera horretan kontuan hartutakoa baino portaera okerragoa izango balu, datorren urterako hazkunde txikiagoa izango litzateke ondorioa.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


Aurtengo bigarren hiruhilekoan, inflazio handiak, eskaintzaren aldetiko murrizketen iraunkortasunak eta ziurgabetasun handiagoak ekonomian eragin moderatzailea izaten jarraitu zuten. Familiek erosteko ahalmena nola murrizten ari zen ikusi zuten, eta enpresek beren hornidura kateetan kostu eta disrupzio handiagoei aurre egiten jarraitu zuten, nahiz eta zenbait botila lepo konpontzen ari zirelako seinale hasiberriak ikusi ziren. Hala eta guztiz ere, dena ez zen negatiboa izan. Jarduera ekonomikoak ekonomia berriro irekitzearen onura izaten jarraitu zuten, zerbitzuen gastua bereziki babestu baitzuen, eta hirugarren hiruhilekoan are handiagoa izatea espero da, nazioko nahiz nazioarteko turismoaren hazkunde garrantzitsuari esker. Lan merkatuak indartsu jarraitu zuen, eta zerga politikaren babesa lagungarri izaten ari da Ukrainako gerra energiaren prezioen igoerak gehien kaltetutakoengan izaten ari den eragina negatiboa arintzeko.

### Munduko ekonomia. BPGa (I) Urte arteko aldakuntza tasak

ELGA



Txina



Iturria: ELGA.

Ukrainako gerraren hasierak areagotu egin zuen lehengai batzuen prezioen igoera, eta horrek aldaketa positiboa ekarri du trukeari dagokionez Latinoamerikako herrialde batzuentzat, urteko bigarren hiruhilekoan haien hazkunde tasak nabarmen igo zirela ikusi baitute. Besteak beste, Kolonbiako BPG %12,6ra igo zen, Txileko jarduera ekonomikoa %5,6 hazi zen, Brasilen BPGaren hazkunde tasa %3,2ra iritsi zen eta Mexikok lehen hiruhilekoko hazkunde tasari eustea eta %1,9an finkatzea lortu zuen. Hala eta guztiz ere, inflazio gertakari horren iraunkortasunak, uste baino handiagoa izan baita, zeharkako eta bigarren txandako ondorio esanguratsuak eragin ditzake, batez ere indexazio maila handiak dituzten ekonomia batzuetan. Horri gehitu behar zaio

Txinako ekonomiaren dezelerazioa, eragin nabarmena izan baitezake Latinoamerikan, eskualdeak herrialde horrekin dituen merkataritza eta inbertsio lotura garrantzitsuak direla eta; beraz, aurtengo bigarren sei hilekoaren bilakaera ziurgabetasunez inguratuta dago.

Izan ere, Txinan, covid zero ko politikan oinarrituta herrialde horretako hainbat tokitan ezarri ziren konfinamendu zorrotzek eragin negatiboa izan zuten joan-etorrietan, hornidura katean eta kontsumoan, eta horrek moteltze ekonomikoa areagotu zuen udaberrian. Zehazki, bigarren hiruhileko honetarako kalkulaturako %0,4ko hazkundeak 1992tik izandako emaitzarik txarrena erakusten du, 2020ko lehen hiruhilekoan izandako -%6,7ko gainbehera izan ezik. Hala eta guztiz ere, Txinako gobernuak baztertu egin zuen edozein atzeraldi, izan ere, covid protokolo batzuk lasaitu bezain laster adierazleak suspertzen hasi ziren. Hala, PMI indize konposatuak horixe baieztatzen du; izan ere, apirilean eta maiatzean hedapen eremutik behera egin ondoren, ekainean 54,1 puntura igo zen, eta, ondoren, 50 puntutik gora mantendu da. Horregatik, bigarrena baino hirugarren hiruhileko hobea espero da, baina hazkunde hori azken hamarkadetan izandako dinamismotik urrun geratuko da.

Hala eta guztiz ere, bigarren hiruhilekoko adierazleek ekonomia erresilienteak erakutsi zituzten, batez ere Europakoak, nahiz eta horiek guztiek beheranzko joera argia erakutsi zuten, eta, orain arte argitaratutako adierazleen arabera, uztailean eta abuztuan mantendu egin zen beheranzko joera hori. Hain zuzen ere, ELGA, oro har, %3,7 hazi zen, aurreko erregistroa baino zazpi hamarren gutxiago, baina, edonola ere, 2018 eta 2019 artean erregistratutako batez besteko %2,0tik gorako erritmoan. Prezioek, aldiz, bilakaera negatiboa izan zuten. Erakundea osatzen duten ekonomien urte arteko inflazio tasaren datuak %10,2 erregistratu zuen uztailean, prezioen igoerarik handiena 1988tik, eta, ondorioz, hamabost dira bi digituko inflazio tasa izan zuten herrialdeak.


Zehatzago esanda, AEBetan, Fed-ek hasitako interes tasen igoeren ziklo azkarrak, familien erosteko ahalmenaren galerak, inflazio handiaren eta laguntza publikoen programen amaieraren ondorioz, kontsumoari eta inbertsio pribatuari eragin zien, batez ere bizitegiatan eginiko inbertsioari, kontrakzioa areagotu baitzuen eta bi agregatuen erregistroak moteldu. Hala eta guztiz ere, kontsumo eta inbertsio pribatuek 1,54 puntu ekarri zituzten BPGaren 1,7 puntuetatik. Halaber, lan merkatuak indar inbidiagarria erakutsi zuen, abuztuan langabezia tasa %3,7 izan baitzen, enplegu betea iradokitzen duena, langabeak baino askoz ere lanpostu huts gehiago daudelako. Horregatik guztiagatik, nahiz eta ekonomiaren hoztea biziagoa izaten ari den tasa igoerekiko sentikorrenak diren sektoreetan, hala nola bizitegi sektorean, zerbitzuen sektoreak aurrerapen nabarmenak erakusten jarraitzen du, eta kontsumoak nahiko sendo jarraitzen du; beraz, oraingoz baztertu egin da atzeraldirik egotea.




Japonian, gobernuak, lehen hiruhilekoan, pandemiarekin lotutako jardueraren balaztak kendu ondoren, bertako BPGa %1,4 hazi zen bigarren hiruhilekoan. Gehikuntza hori esportazioen bultzadan oinarritu zen, Japoniako monetaren beherakadak mesede egin baitzien (%20 inguru galdu du AEBetako dolarraren aldean azken sei hilabeteetan), eta kontsumo pribatuaren gorakadan, %3,0 hazi baitzen. Gainerako ekonomietan ez bezala, prezioen bilakaera ez da, oraingoz, oztopo Japoniako ekonomiarentzat. Zehazki, KPIa urte arteko %2,4 igo zen uztailean, hau da, ondoz ondoko hamaikagarren hilabetea hazten, eta zazpi urte eta erdian prezioek izan duten gorakadarik handiena da. Aitzitik, hirugarren hiruhilekorako bilakaera ekonomikoak berriz ere erritmoa galtzen duten adierazleak jasotzen ditu, eta abuztuan 50 puntutik behera jaitsi zen PMI konposatua.

### Munduko ekonomia. BPGa (II) Urte arteko aldakuntza tasak

AEB



Europar Batasuna 27



Iturria: Eurostat eta BEA.

Europar Batasunaren jarduera ekonomikoari mesede egin zion 2022ko bigarren hiruhilekoan ekonomia berriro irekitzeak. Eremu horretako BPGa %4,2 hazi zen, barne eskariaren ekarpen positiboak bultzatuta, eta kanpo eskariak, berriz, eragin negatibo txikia izan zuen. Kontsumo pribatuak (%5,5) eta inbertsioak (%3,4) nabarmen egin zuten gora bigarren hiruhilekoan, eta kontsumo publikoak, berriz, hazkunde apalagoa izan zuen (%1,4). Bigarren hiruhilekoko hazkunde indartsua, gehienbat, zerbitzuen sektorearen jarduera biziaren ondorio izan zen, pandemiarekin lotutako murrizketa gehienak kendu ondoren. Turismoarekin eta ostalaritzarekin lotutako zerbitzuen kontsumoko gastua oso handia izan zen udaberrian, eta horrek, bereziki, sektore turistiko handiko herrialdeei egin zien mesede, hala nola Espainiari (%6,8), Italiari (%4,7) eta Frantziari (%4,2). Aitzitik, Alemaniak garrantzi handiagoa du industrian zerbitzuetan baino, eta ez du hain aurrerapen handirik lortu. Kontsumitzaileek gastua handitu zuten arren, kapital eraketa gordina nabarmen jaitsi zen (-%1,7), eta esportazioek tonua galdu

zuten, Errusiari ondasunen salmenta nabarmen txikiagoa egin zitzaiolako. Horren guztiaren ondorioz, Alemaniako ekonomia %1,7 hazi zen, bere merkataritza bazkide nagusiek erregistratutako mailaren oso azpitik.

Prezioei dagokienez, abuztuan inflazioak errekorra ezarri zuen Europar Batasunean, %10,1era iritsi baitzen, uztailean baino hiru hamarren gorago. Eurogune osoan, prezioen garestitzeak %9,1eraino egin zuen gora, energiaren prezioaren urte arteko igoera %38,6ra moteldu zen arren, uztailean baino puntu bat gutxiago.

Hirugarren hiruhilekoari begira, 2022ko lehen sei hilekoan errebotea jaso ondoren, azken datuen arabera hazkunde ekonomikoak moteltzeko joera nabarmena izan du aurtengo azken hilabeteetan. Europako ekonomiak energiaren krisiaren aurrean duen ahultasuna urteko hirugarren hiruhilekorako eskuragarri dauden jarduera adierazleetan hauteman daiteke. Europar Batasunerako PMI konposatua 48,8ra jaitsi zen abuztuan (48,9 euroaren eremurako), uztaileko erregistroa baino ia puntu bat beherago, eta urteko hirugarren hiruhilekoan jardueraren beste apaltze batekin bat dator. Erritmo galera hori bereziki nabarmena da Alemanian; izan ere, irailean PMI konposatua 45,9koa izan zen, 50 puntuko atalasearen azpitik hirugarren hilabetez jarraian.

Europar Batasuna alde batera utzita, Erresuma Batuak nabarmen murriztu zuen hazkunde erritmoa. Zehazki, jarduera ekonomikoak aurtengo lehen hiruhilekoan %8,9 hazi zen, eta bigarrenean, berriz, %2,9. Tonu galera hori kontsumo pribatuaren eta esportazioen dezelerazioagatik (%0,3) gertatu zen. Beste behin ere, erosteko ahalmenaren murrizketak azaltzen du hazkunde txikiagoa. Bestalde, kanpo sektoreak zenbait hamarren kendu zizkion BPGaren hazkundeari.

Azkenik, Errusiako jarduera ekonomikoak uste baino moteltze txikiagoa erakutsi zuen. Hori horrela, 2022ko bigarren hiruhilekoan, bertako BPGaren hazkundera %4,0 murriztu zen aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, eta horrek esan nahi du aurtengo atzeraldia ziurrenik adituen proiektzioetan aurreikusitakoa baino txikiagoa izango dela. Hala eta guztiz ere, jarduera ekonomikoak dezelerazio nabarmena izango duela aurreikusten da; izan ere, bai barne eskariari bai nazioarteko merkataritzari gero eta eragin handiagoa izaten ari dira aurrekaririk gabeko nazioarteko zigorren ondorioz. Zigor horiek inportazioko prezioen igoerak eta eskaintza distortsioak eragin dituzte, eta faktore horiek inflazioaren gaineko goranzko presioak eragiten ari dira. Hala ere, presio horietako batzuk errubloaren sendotasunak eta kontsumo eskariaren ahultzeak indargabetu dituzte berriki.

## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2022ko bigarren hiruhilekoan, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiak aurreko aldietan erakutsi zuen goranzko joerari jarraipena eman zion, eta %5,0ko hazkundea izan zuen urte arteko tasan. Hazkunde erritmoa oraindik ezohikoa da oso altua delako. Halere, tasa hori aurreko epealdikoa baino zortzi hamarren txikiagoa da, eta zenbait hiruhilekotan luzatuko den moteltzeko fase bati hasiera ematen dio. Hazkunde txikiagoa azaltzen duten arrazoiaren artean, beste ekonomia garatu batzuen egoera azaltzeko ere baliagarriak direnak, honako hauek aipatu behar dira: Ukrainako gerraren ondorioak, produktu energetikoen garestitzea eta horrek ekarri duen inflazio handia, moneta politikaren zeinu aldaketa inflazioa geldiarazteko, Txinaren ahultasuna pandemiaren aurkako politikagatik eta eragile ekonomikoen artean zabaldu den ziurgabetasuna.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>-9,6</b>	<b>5,9</b>	<b>19,1</b>	<b>4,7</b>	<b>4,9</b>	<b>5,8</b>	<b>5,0</b>
Nekazaritza eta arrantza	-16,9	21,9	32,9	29,1	14,5	-1,7	-3,2
Industria eta energia	-12,2	6,1	27,2	2,4	3,7	6,5	6,1
- Manufakturen industria	-13,1	5,6	27,7	1,9	2,5	5,9	5,9
Eraikuntza	-14,4	4,5	15,7	4,7	2,5	1,9	1,5
Zerbitzuak	-7,9	5,8	16,9	5,2	5,5	6,2	5,6
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	-20,4	11,8	25,5	12,5	14,6	13,1	14,1
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	1,1	3,1	3,5	3,5	3,2	3,0	1,3
- Gainontzeko zerbitzuak	-4,3	4,0	20,9	2,2	1,7	3,9	3,0
Balio erantsi gordina	-9,4	5,9	19,3	4,7	5,0	6,0	5,4
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-11,9	6,1	17,5	4,2	4,1	3,9	3,2

Iturria: Eustat.

Beste hiruhileko batez, industria izan zen urte arteko tasan gehien hazi zen sektore ekonomikoa. Aurtengo hasierako hazkunde handiaren ondoren, bigarren hiruhilekoan gehikuntza tasa

%6,1ekoa izan zen, bakarrik hamarren gutxi batzuk txikiagoa. Lehengaiak eta produktu erdilanduak iristeko orduan arazoak daude oraindik, eta zenbait ondasun eta energia garestitzearen ondorioak nabaritzen hasi dira, baina hori ez da oztopo izan beren jarduna arrakastaz egin ahal izateko. Une honetan, pandemiaren aurreko jardura maila erabat berreskuratzeko bi puntura dago sektorea.

## JARDUERAREN ADIERAZLEAK

### Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	-13,4	10,5	32,3	6,9	6,5	8,1	7,4
Negozio zifren indizea	-16,2	18,2	42,2	16,1	15,6	21,4	38,7
Industria giroaren indizea	-19,5	-10,2	-10,1	-16,4	-10,7	6,5	4,7
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-0,4	1,2	0,7	1,5	1,1
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-8,1	7,8	17,2	4,5	2,7	8,1	8,4
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	-6,5	39,6	48,9	36,6	9,9	0,2	-34,9
Etxebizitzen salerosketak	-13,6	21,3	59,7	17,4	9,0	16,6	6,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,9	1,1	3,3	1,0	1,1	1,9	1,7
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	-71,6	57,5	2.440,3	118,5	278,5	382,5	272,1
Hoteletan igarotako gaualdiak	-61,5	73,4	422,1	81,4	216,8	176,5	146,5
Negozio zifren indizea	-12,4	15,4	33,2	12,8	17,4	18,1	20,3
Zerbitzuen koiuntura indizea	-7,4	6,0	20,0	1,7	2,4	4,8	4,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-0,8	1,2	2,2	2,0	2,3	2,9	2,9

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Gizarte Segurantzak eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industria alorreko adarren barruan, nabarmentzekoa da energiaren ekoizpenak bultzada handia jaso duela, Ukrainako gerraren ondorioz Europan bizi den energia krisiaren ondorioz. Zehatz-mehatz adierazita, energiaren ekoizpena %25 handitu zen azken hilabeteetan, eta urtearen hasieratik %15 ingurukoa izan da batez bestekoa; kopuru horiek ez dute aurrekaririk serie historikoan. Beste aldetik, ekipamendurako ondasunen ekoizpena ere oso ona da, urtean %12 inguruko batez besteko hazkundea metatzen baitu. Aitzitik, zifrak apalagoak dira bitarteko ondasunen produkzioaren kasuan, ekoizpena %1,8 baino ez baitu handitzen. Azkenik, kontsumoko ondasunetan bilakaera kontrakoa izan da kontsumo ondasun iraunkorretan (-%1,9

urtea hasi zenetik) eta ondasun galkorretan (%6,0), nahiz eta bi kasuetan jarduera sektoreko batez bestekoa baino txikiagoa izan.

Industriak erakusten duen indarra sektoreak gaur egungo egoerari buruz eman dituen erantzunetan ere hauteman daiteke, industria klimaren indizean jasota baitaude. Datu berrienetan, oraindik ere baikortasun esanguratsua ikusten da, baina udaberriko datuetan baino txikiagoa. Harrezkero, eskaeren zorroak okerrera egin du apur bat, nahiz eta oraindik ere garrantzitsua den, eta saldu gabeko stockek gora egin dute. Aitzitik, ekoizpenaren joerari buruzko erantzunak oso onak dira oraindik ere. Enpleguari buruzko igurikimenek ere okerrera egin dute inkesta horretan.

Eraikuntza da kostuen igoeraren inpaktua gehien nabaritzen ari den sektorea, beraren jarduera erritmoa asko geldiarazi baitu. Hain zuzen ere, sektorearen balio erantsia %4,7ko erritmoan hazi zen 2021eko hirugarren hiruhilekoan, ekonomia osoarena berdinduz, baina ordutik hona haren hazkunde erritmoa moteldu egin da, eta bigarren hiruhilekoan %1,5ekoa baino ez da izan, batez bestekoaren oso azpitik dagoen gehikuntza tasa baita. Eraikuntzaren koiuntura indizeak iradokitzen du obra zibilak eraikuntzak baino bultzada handiagoa duela. Beste aldetik, etxebizitzaren merkatua indarberritu egin da eta salmentak %10eko erritmoan hazi dira aurtengo lehen zazpi hilabeteetan. Batez ere erabilitako etxebizitzak saltzen dira, baina eraikin berrien salmenta ere nabarmen igo da (%6,2).

Zerbitzuek beren balio erantsia %5,6 hobetu zuten urte arteko tasan bigarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino sei hamarren gutxiago, baina 2021. urtearen zati handi batean lortutako zenbakiekin bat etorritz. Sektore horrek pandemiaren aurrean zeukan jarduera maila erabat berreskuratzea lortu du. Pandemia kontrolatzeko hartutako neurriak kentzeak eta kontsumo handiagoari dagokionez herritarrek eman duten erantzunak azaltzen dute sektoreak bizi duen une ona.


Zerbitzuen sektorea osatzen duten hiru jarduera multzoetatik, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen izan zen portaera onena erakutsi zuena bigarren hiruhilekoan (%14,1), 2021eko batez besteko hazkundea (%11,8) ere gaindituz. Ostalaritza zerbitzuen eskariaren gorakada handiak eta pandemia amaitu ondoren bidaiatzeko gogoak jarduera horiek bizi duten une bikaina erraztu dute. Aitzitik, sektore publikoari lotutako jarduerak garrantzi handia izan zuten pandemiaren lehen konpasetan, eta orain hazkunde apalagoa erakusten dute (%1,3), egoera normaltasunera itzultzearekin bat etorritz. Azkenik, gainerako zerbitzuen balio erantsia %3,0 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino ia puntu bat gutxiago, baina ia azko bigarren erdian erregistratutako batez bestekoaren gainetik.

Turismoak aurtengo lehen erdian erakutsi duen bultzada handiak jarraipena izan du hirugarren hiru hilabeteetan ere, uztaileko eta abuzturako eskuragarri dagoen koiunturako informazioaren arabera. Alde batetik, hotel establezimenduetan igarotako gaualdiak serie historiko osoko zifrarik handiena izan zuten abuztuan: 839.000 gaualdi, hots, aurreko urteko datua baino %7,5 gehiago. Era berean, EAEko aireportuetatik ibili ziren pertsonen kopurua %50 baino gehiago igo zen uztaila eta abuztua bitartean, eta 2019an erregistratutako mailan kokatu zen.


EAEko BPGak erakusten duen sendotasunaren ondorioz, enplegu sorrera handia lortu da, eta bigarren hiru hilabeteetan, lanaldi osoko lanpostu baliokideetan neurtuta, %3,7koa izan da. Tasa horren ondorioz, azken urtean 35.500 lanpostu gehiago izan dira lan merkatuan, eta guztira milioi bat enplegu berreskuratzeko atarian geratu dira. Beraz, pandemian galdutako enplegu guztia berreskuratu da jada, eta 2008-2009ko Atzeraldi Handiaren aurreko hiru hilabeteetan erregistratutako zifretara itzultzetik gertu gaude. Enplegu berriaren guztizkotik, 30.000 lanpostu inguru zerbitzuetan kontzentratu ziren, industria ez zen 5.000 lanpostura iritsi eta eraikuntza 1.000 enplegu baino zertxobait gutxiagora.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantza.

Lanaldi osoko lanpostuetan neurtu beharrean lan merkatua pertsonen kopuruan aztertzen bada, BJAk ahalbidetzen duen bezala, bigarren hiru hilabeteetako emaitzak adierazten du aldi horretan 23.400 pertsona gehiago zeudela lanean 2021eko hiru hilabeteetako berean baino. Horietatik 14.400 inguru gizonak izan ziren eta 9.000 inguru, berriz, emakumeak. Datuek adierazten dute erdiko adin tartean (25 eta 44 urte bitartean) lana aurkitu duten emakumeen kopurua

gizonena baino handiagoa izan dela, baina adin horretatik aurrera kontrakoa gertatzen da. Hala eta guztiz ere, bi sexuen enplegu tasak hobera egin du: lau hamarren igo da bi kasuetan, %56,3raino gizonen kasuan eta %47,3raino emakumeen kasuan. Beraz, aurreko urteetan zeuden bederatzi puntuko aldeak bere horretan jarraitzen du.

Lan merkatuan bizi den unearen ezaugarri gehigarri bat lanaldi motarekin lotuta dago. BAIren zenbatespenaren arabera, azken urtean lanaldi partzialean lan egiten duten soldatapekoen ehunekoa %17,0ra igo da Euskadin, aurreko urteko hiruhileko berean zegoena baino ia puntu bat gehiago baita. Lanaldi partziala batez ere emakumeei egindako kontratuetan erabiltzen da. Izan ere, emakume langileen laurdenak sinatu du kontratu mota hori, eta gizonen artean, berriz, ehunekoa %8,9ra mugatzen da. Hala ere, azken urtean, partzialtasunaren hazkundera gizonezkoen artean hauteman da neurri handiagoan. Badirudi igoera hori enpresek lan merkatuaren azken erreformaren baldintza berriei emandako erantzuna dela, erreformak kontratazio mugagabeari lehentasuna ematen baitio.

Lan merkatuari buruzko informazio berrienak, Gizarte Segurantzako afiliazioen bidez lortutakoak, adierazten du udan moteldu egin dela enplegua sortzeko erritmoa, bigarren hiruhilekoko %2,4tik uztaileko eta abuztuko %1,8ra. Hala eta guztiz ere, oso zenbaki esanguratsua izaten jarraitzen du. Kasu horretan, afiliazio berriek emakumeen alde egiten dute, %2,0 inguruko erritmoan, gizonen %1,6aren aldean. Ostalaritza, jarduera artistikoak, jarduera profesionalak eta administrazio publikoa dira gaur egun dinamismo handiena erakusten duten jarduera adarrak.

Enpleguaren hobekuntzari esker, langabeziak behera egin du berriro, eta horrek 18.000 pertsona ingururi egiten die mesede, BJAren arabera (10.000 gizon eta 8.000 emakume inguru). Horri esker, langabezia-tasa %8,5era jaitsi da, lehen hiruhilekoko datua baino sei hamarren beherago. Jaitsiera handiagoa izan da emakumeen artean, orain %8,8ko langabezia tasa baitute, baina gizonen artean ere murriztu egin da (%8,2). Bestalde, langabezia tasak behera egin du 25 urtetik gorakoen artean, eta gora egin du gazteenen artean.

BPGaren hazkunderaren (%5,0) eta enpleguaren bilakaeraren (%3,7) arteko konbinazioak itxurazko produktibitatearen %1,2ko irabazia iradokitzen du, eta tasa hori aldagai horren batez besteko historikoa (%0,8) baino handiagoa da. Aldagai horren balioak normalizatzen ari dira; izan ere, industria da berriz ere eraginkortasunean hobekuntzarik handienak lortu dituen sektorea (%3,7), eta eraikuntzak, berriz, ia irabazirik ez du izaten, ohi bezala. Bestalde, zerbitzuetako produktibitatea %1,2 hazi zen bigarren hiruhilekoan, eta zifra hori batez besteko historikoaren gainetik dago.

## Barne eta kanpo eskaria

2022ko bigarren hiruhilekoan, ezohiko gertakari bat hauteman zen BPGaren hazkundearen banaketan, sortzen duen eskariaren arabera aztertzen denean. Hain zuzen ere, hiruhileko horretan, gehikuntzaren ia erdia kanpo saldoaren ekarpena izan zen, eta aldagai horrek portaera neutroa izan ohi du EAEko ekonomian, baina azken hiruhilekoetan garrantzi handiagoa bereganatu du. Saldo positiboa, bereziki, esportazioen atalean erakutsitako dinamismoagatik gertatu da, termino errealetan, laugarren hiruhilekoz jarraian, hazkunde tasak %13tik gora mantendu baitziren. Inportazioek ere gora egin zuten bizitasun handiz, baina erritmo motelagoan, %8,5 areagotu zirelako.

### ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
<b>BPG erreala</b>	<b>-9,6</b>	<b>5,9</b>	<b>19,1</b>	<b>4,7</b>	<b>4,9</b>	<b>5,8</b>	<b>5,0</b>
Gastua azken kontsumoan	-8,9	5,2	15,9	2,9	3,8	2,6	1,5
- Familien gastua kontsumoan	-12,1	5,6	19,8	2,5	4,0	3,2	3,0
- Adminis. gastua kontsumoan	2,9	3,9	4,5	4,4	3,3	0,6	-3,1
Kapital eraketa gordina	-12,1	6,0	23,2	2,9	3,0	4,9	5,0
- Ekipamendu ondasunak	-11,8	10,9	39,0	5,8	5,7	9,1	9,0
- Gainontzeko inbertsioa	-12,3	3,1	14,8	1,3	1,3	2,2	2,4
Barne eskaria	-9,7	5,4	17,5	2,9	3,6	3,2	2,4
Esportazioak	-15,9	12,7	29,6	13,6	13,5	13,5	13,7
Inportazioak	-15,8	11,6	28,1	12,6	9,3	10,4	8,5

Iturria: Eustat.

Barne eskariak moteltzeko irudia erakutsi zuen, nahiz eta agregatu horren bi osagai nagusiek ia ez zuten hazkunde erritmoa aldatu. Zehazkiago adierazita, barne eskaria %3,2 hazi zen lehen hiruhilekoan eta %2,4, berriz, bigarreanean. Apaltze hori, ia bakar-bakarrik, administrazio publikoen gastuaren portaera uzcurraren ondorioz gertatu zen, urte arteko %3,1 esanguratsua murriztu baitzen. Emaidza horren zati bat administrazioaren gastuen egutegiari zor zaio. Egutegi hori hurrengo hiruhilekoko igoerarekin konpentsatu daiteke, baina beste zati bat pandemia osteko fase batean sartzearen ondorio izango da, eta fase horretan baliabide gutxiago beharko ditu birusari aurre egiteko.



Kontsumoko prezioen igoera handia eta eragile ekonomikoen artean zabaldu den mesfidantza gorabehera, EAEko familien gastuak goranzko joerari eutsi zion bigarren hiruhilekoan ere, %3,0 hazi baitzen, aurreko hiruhilekoan baino hamarren pare bat gutxiago bakarrik. Pandemian atzeratutako eskariari eta denbora horretan metatutako aurrezpenari esker, eta enplegua nabarmen hazi denez, familiek kontsumoa erritmo nabarmenean handitzen jarraitu dute. Hala ere, inflazioak sortzen duen erosteko ahalmenaren galerak datozen hiruhilekoetan agregatu makroekonomiko horren aldakuntza tasak moteltzea espero da.

Era berean, kapital eraketa gordinak hazkunde sendoko irudia erakutsi zuen bigarren hiruhilekoan, %5,0ko gehikuntzarekin, azken lau hiruhilekoetako maximoarekin, alegia. Botila lepoak partzialki konpondu dira eta kostuen igoerak azken produktuen prezioak igotzera behartu du. Hala ere, kanpo merkatuaren eta tokiko merkatuaren beraren tirabirak agregatuaren martxa onari mesede egin dio. Bereziki garrantzitsua da ekipamenduko ondasunetan egindako inbertsioaren bultzada (%9,0), baina gainerako inbertsioak ere, eraikuntzan egindakoa barne, aurreko hiru hiruhilekoetako tasak hobetu zituen. Ekipamendurako ondasunen inportazioa, batez ere EAEn inbertitzeko erabiltzen dena, garrantzitsua izan zen uztailen ere, eta industria sektoreko giroa baikorra zen; beraz, hirugarren hiruhilekorako ere emaitza ona izango dela aurreikusten da.

## KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
<b>Kontsumoa</b>							
Azalera eta kate handietako salmentak	2,2	0,2	3,6	-2,9	-1,1	-1,0	-1,1
Txikizkako merkataritza indizea	-4,9	3,5	15,4	-2,3	3,3	5,0	4,2
Kontsumo ondasunen ekoizpena	-6,6	11,9	25,7	11,0	11,8	9,0	3,4
Kontsumo ondasunen inportazioa	-0,3	20,0	22,7	17,5	22,6	11,0	48,3
Turismoen matrikulazioa	-22,0	-19,7	40,3	-41,8	-32,3	-14,0	-9,8
<b>Inbertsioa</b>							
Ekipo ondasunen ekoizpena	-12,5	13,3	34,6	10,6	11,7	15,2	13,3
Ekipo ondasunen inportazioa	-16,4	21,1	43,1	17,3	20,1	19,6	23,5
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	-22,5	7,0	75,5	-10,9	-28,4	-22,6	-23,5
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	-6,5	39,6	48,9	36,6	9,9	0,2	-34,9
Lizitazio ofiziala	-23,7	63,2	131,6	71,6	29,2	45,5	-16,8

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Lehenago ere adierazi den bezala, gaur egungo ezaugarri aipagarrienetako bat da kanpo saldoak ekarpen handia egin diola ekonomiaren hazkunderari, bai bigarren hiruhilekoan, bai lehenengoan. Bi aldietan, ekarpen hori 2,5 puntu ingurukoa izan da, hau da, bigarren hiruhilekoan lortutako hazkunderaren erdia. Ekarpen handi hori urrun dago aldagai horrek izan ohi duen neutraltasunetik.

Kanpora bidalitako ondasunen eta zerbitzuen esportazioen gorakada handiak kanpo saldoaren ekarpen positibo azpimarragarria azaltzen du. Termino errealetan, igoera hori %13,7koa izan zen, aurreko hiru hiruhilekoetan jasotako tasen antzekoa. Termino nominaletan, berriz, esportatutako balioaren igoera %28,9koa izan zen, 15.794 milioi euro guztira hiruhilekoan, inoiz jaso den kopururik handiena baita. Bi tasa horien arteko alderaketak agerian uzten du prezioek duten garrantzia kanpo merkataritzaren bilakaeran, %15aren inguruko garestitzeak gertatu baitira. Inportazio nominalek ere garestitze nabarmena izan zuten, batez ere energia osagaiarenak, eta %27,6 hazi ziren guztira, 16.497 milioi euroko diru kopurura iritsita, kanpo saldo negatiboa sortuz. Kopuru horiek, termino errealetan, inportazioen hazkundera %8,5 utzi zuten.

Garrantzitsua da azpimarratzea esportatutako 15.794 milioi euro horietatik 9.140 milioi atzerrira bidalitako EAEko ondasunen (zerbitzurik gabe) ordainketa izan zela. Kasu honetan ere serie historikoan erregistratu den kopururik handiena da. Zehazkiago, atzerrira bidalitako ondasunen salmentak %43,0 egin zuen gora aurreko urtearen aldean, eta tasa horrek ia bikoiztu egiten du 2021eko batez bestekoa (%23,0), eta, neurri handi batean, produktuen garestitzeak justifikatzen du, baina baita esportatutako kopuruaren hazkunde nabarmenak ere. Eustaten datuen arabera, erregai mineralak %30 gehiago saldu ziren, eta gainerako produktuak ere %34 gehiago esportatu ziren. Zifra horiek are garrantzitsuagoak dira kontuan hartzen badugu gerrako testuinguru batean lortu direla, eta testuinguru horrek eragina duela ekoizpen kateetan eta eragile ekonomikoen igurikimenean.

Ukrainako gerraren ondorioz energiak bizi duen krisiari esker, energiaren sektoreko EAEko enpresek atzerrian egindako salmentak handitu egin dituzte, kantitatean, lehen aipatu den bezala, eta balioan (%136,1). Zehazki, 2021eko bigarren hiruhilekoan fakturatutako 1.044 milioi eurotik aurtengo 2.275 milioi eurora igaro da, serie historikoan erregistratutako zenbakirik handiena, 2008ko erregistroen gainetik ere.

Beste aldetik, energiaren bestelako produktuek %38,4ko hazkunde nominala eskuratu zuten eta esportatutako kantitatea %34,1 hazi zen; beraz, itxuraz, prezioen igoerak ondasun hauetan energiako ondasunetan baino eragin txikiagoa izan du. Produktu talde handien artean, metal arruntaren salmentak (%50,5) eta garraio-materialarenak (%34,0) nabarmentzen dira, baina talde

txikienek ere emaitza onak izan zituzten: nekazaritzako produktuek %46,6 egin zuten gora eta produktu kimikoek, berriz, %65,1, bi adibide jartzeagatik.

Beste behin ere, EAEko atzerriko esportazioen helmuga nagusia herrialde garatuak izan ziren, guztizkoaren %85 kontzentratu baitzuten. Herrialde-talde horri egindako salmenten hazkundera %44,0koa izan zen aldi horretan; munduko gainerako herrialdeetan, aldiz, igoera %37,8koa izan zen, eta hori ere emaitza esanguratsua izan zen. Oro har, EAEko esportazioek oso hazkunde handiak izan zituzten herrialde garatuak merkatu guztietan bigarren hiruhilekoan.

## ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>-17,8</b>	<b>23,0</b>	<b>22,2</b>	<b>22,2</b>	<b>21,7</b>	<b>43,0</b>	<b>9.140.077</b>
ELGA	-16,5	23,9	22,6	22,4	19,4	44,0	7.750.269
Eurogunea	-12,7	25,9	26,6	23,0	23,4	43,9	5.118.661
Alemania	-6,1	13,4	2,8	8,9	7,8	41,7	1.422.110
Frantzia	-17,5	27,4	29,9	27,8	23,5	38,0	1.414.658
Italia	-9,4	26,5	35,9	19,3	39,0	48,7	497.673
Erresuma Batua	-42,2	26,2	28,6	12,9	-3,5	52,5	611.266
AEB	-23,8	16,8	15,8	38,2	27,2	57,6	608.450
ELGAtik kanpokoak	-24,0	18,2	19,9	20,8	34,7	37,8	1.389.808

Iturria: Eustat.

Euroaren eremua da EAEko enpresen atzerriko merkatu behinena. Hiruhilekoan 5.100 milioi eurotik gorako salmentak lortu ziren, aurreko urtean baino %43,9 gehiago. Nabarmentzekoa da ibilgailu automobilaren salmentaren gorakada handia (%42,5), aurreko aldietako datu ahulen ondoren, erdieroaleen eta bitarteko beste ondasun batzuen eskasiak baldintzatuta. Galdaketari lotutako atalen portaera ere bikaina izan zen, oro har esportazioak %58,3 handitu baitziren. Pisua duten beste produktu batzuek, hala nola makineriak, aldakuntza tasa oso esanguratsua eskuratu zituzten.

Alemaniak eta Frantziak, euroaren eremuko bi helmuga nagusiek, EAEko produktuak erosi zituzten oso antzeko zenbatekoan (1.422 milioi euro eta 1.415 milioi, hurrenez hurren), eta beren aldakuntza tasak eremu osokoak baino apur bat txikiagoak bakarrik izan ziren. Alemaniaren kasuan, automobilgintzaren merkatuaren gorakadak azaltzen du herrialdeari

egindako salmenten bizitasuna. Horiek horrela, ibilgailu automobilen esportazioa, EAetik Alemaniara esportatzen den guztiaren ia erdia baita, %54,2 hazi zen, hiru hiruhilekotan apatia nabarmena erakutsi eta gero. Galdaketak ere bilakaera oso ona izan zuen. Aitzitik, makineriak, elektrikoak zein mekanikoak, tasa apalak jaso zituen.

Frantzian, galdaketako EAeko produktuen salmentak pisu handia du (gutzizkoaren %22,8 bereganatzen du) eta %46,7 egin zuen gora, neurri handi batean guztizko emaitza (%38,0) baldintzatuz. Ibilgailu automobilak merkatu horretara esportatzeak ez zuen beste herrialde batzuetan bezainbesteko dinamismorik erakutsi, eta %23,4an utzi zuen aldakuntza tasa. Bestalde, egitura esportatzailean duten pisua oso handia ez den arren, erregai mineralen hazkunde handia nabarmentzen da (%84,8). Azkenik, makineriaren bi atalek hazkunde erritmo garrantzitsuak izan zituzten, esportazioen batez bestekoaren ildotik.

Italia izan zen, berriz ere, euroaren eremuko herrialde handien artean, EAeko enpresei egindako erosketak gehien handitu zituena (%48,7). Funtsean, erosketak horiek hiru produktu bloketan biltzen dira. Alde batetik, ibilgailu automobilak, guztizkoaren %14,8 baitira, eta ia bikoiztu egin zituzten salmentak herrialde hartan. Galdaketako atalek ere (erosketen ia %23) nabarmen egin zuten gora esportazioan (%70,0). Azkenik, makineriak emaitza apalagoa izan zuen, %15 inguruko gehikuntza batekin.

Euroaren eremutik kanpo, Erresuma Batuak %52,5 handitu zuen EAeko produktuen erosketak, 611 milioi eurora arte. Igoera horren zati handi bat erregai mineralen 61 milioi euroko ezohiko erosketak batek azaltzen du, normalean salmentetan inolako garrantzirik ez duen produktua baita, nahiz eta une jakin batzuetan, hiruhileko horretan bezala, garrantzitsua izan. Pisu handieneko partiden artean, bilakaera oso positiboa izan zen burdina eta altzairuaren galdaketan (%57,7) eta makinerian (%63,4). Hala ere, ibilgailu automobilen esportazioa %10,4 baino ez zen igo aldi horretan.

Energiak ere azaltzen du, neurri handi batean, AEBetako merkatura egindako esportazioen bilakaera. Hain zuzen ere, herrialde horretan saldutako guztiaren ia laurdena erregai mineralak dira, bigarren hiruhilekoan bikoiztu egin baitzuten salmenta. Baina, era berean, oso esanguratsua da galdaketako manufakturen bilakaera, laukoiztu egin baitziren 2021eko aldi bereko salmentak. Aitzitik, makineriaren esportazioa merkatu horretara moteldu egin dela hautematen da, hain zuzen ere lurralde horretara esportatzen diren ondasunen egituran pisu handiagoa hartzen ari zen ataletako bat. Zehatz-mehatz adierazita, makinen salmenta %5,6 murriztu zen bigarren hiruhilekoan, nahiz eta oraindik ere AEBetara esportatutako guztiaren %22 inguru den.

Garapen bidean dauden herrialdeetarako esportazioak %37,8 gehitu ziren bigarren hiruhilekoan, herrialde multzo horretara bideratzen diren partida nagusiek lagunduta. Bereziki, erregai mineralen bilakaera ona nabarmentzen da, merkatu horretan salmenta zazpi aldiz biderkatu baitzuten 196 milioi euroraino. Era berean, ibilgailu automobilen esportazioak %47,9 egin du gora aurreko urtearen aldean, eta bost hiruhilekotan hazkunde handiak lortu ditu. Azkenik, makinaren salmentak balio positiboak izan zituen, baina ez ziren aipatutako beste bi ataletako tasetara iritsi.

Txinarekiko harreman komertzialak, azken urtean, ibilgailu automobilen salmentan kontzentratu dira, herrialde horretara EAetik bidaltzen diren esportazio guztien ia erdia biltzen duena. Salmenta horiek bikoiztu egin dira aurreko urtearen aldean, eta 93 milioi eurora iritsi dira, guztira 205 milioi esportatu baitira herrialdera. Aitzitik, makinaren salmenta (70 milioi euro) ez zen aurreko urteko zenbatekora iritsi, eta lau hiruhilekotan jarraian jaitsi da. Hala eta guztiz ere, makinek Txinako merkatura bidaltzen diren EAeko salmenta guztien %34 izaten jarraitzen dute. Pisu txikia izan zuten beste produktu batzuk, kobrea eta aluminioa kasu, herrialdeari egindako salmenten egituraren ehuneko marjinala dira orain.

Espero zen bezala, Errusiarako esportazioak murrizten ari dira mendebaldeko herrialdeek herrialde horri ezarritako zigor ekonomikoengatik. 2022ko bigarren hiruhilekoan, EAeko produktuen salmentak 38 milioi euro izan ziren guztira, batez ere makineria mekanikoan kontzentratuta (28 milioi). Guztizkoan, esportazioak %32,1 murriztu ziren eta jaitsierak lau hiruhilekotan jarraian pilatu dira. Duela urtebete bat salmenta gehienak ibilgailu automobileren zegozkien (esportatutako guztiaren %42 biltzen zuen atal horrek), baina atal hori %8,0 baino ez da gaur egun, eta guztira 3 milioi euro saldu dira automobilen taldean. Kautxuaren salmentak, pisua duen beste produktu-talde bat baita, desagertu egin dira herrialdera esportatzen den egituratik.

Brasilen kasua kontrakoa da eta gero eta pisu handiagoa hartzen ari da EAeko produktuen helmuga gisa. Bigarren hiruhilekoan, herrialde horretara bideratutako esportazioak %32,5 hazi ziren, eta ondorengo bost alditan hazkunde tasa oso handiak lortu dira. Erregai mineralen salmenta puntualek asko baldintzatzen dute herrialdera egiten den esportazioa. Hala ere, hiruhileko horretan ez da produktu horren salmentarik izan eta igoseraren arduraduna makineria da, orain esportazioen ia erdia ordezkatzeko baitu eta eskaria %58,0 handitu baitu. Aireko nabigazioak ere emaitza ona izan zuen (%59,1).

Atzerritik ekarritako ondasunen inportazioek ere goranzko bilakaera garrantzitsua erakutsi zuten (%51,1), eta erosketa guztiak 7.855 milioi eurora iritsi ziren, serie historikoaren baliorik handienara, alegia. Gehikuntzaren zati handi bat erregai mineralek eragin dute, inportazioaren balioa %117,9 igo baitute, baina gainerako produktuek ere hazkunde esanguratsua izan dute

(%34,3). Ehunekoak garrantzitsuak dira talde guztietan, baina metal arrunten erosketak pixka bat nabarmentzen da (%43,1).

Inportazioen jatorrian, aurreko hiruhilekoetako joerari eutsi zaio, eta hazkunde tasa oso handiak eskuratu dira herrialde garatuetan (%48,4) eta, bereziki, garapen bidean dauden herrialdeetan (%56,8). Lehenengoan artean, Alemania nabarmentzen da, EAEko enpresentzako produktu hornitzaile nagusia dena, nahiko emaitza ahula izan duelako, industria sektorearen arazoei lotuta. Aitzitik, merkataritza harremana areagotu egin da AEBekin (%522,9), herrialde horretan 571 milioi euroko balioa duten produktuak erosi baitira, bereziki erregai mineralak (432 milioi euro).

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	II
<b>GUZTIRA</b>	<b>-21,9</b>	<b>34,1</b>	<b>41,4</b>	<b>46,9</b>	<b>42,4</b>	<b>51,1</b>	<b>7.854.799</b>
ELGA	-18,9	28,0	28,4	31,8	36,0	48,4	5.193.943
Eurogunea	-14,4	28,5	31,7	24,6	31,0	30,3	3.181.390
Alemania	-14,9	21,1	20,8	14,1	26,6	24,6	972.568
Frantzia	-11,8	29,8	32,8	27,5	32,7	43,4	694.007
Italia	-11,3	34,8	40,0	10,6	24,3	21,8	360.188
Erresuma Batua	-20,0	33,6	13,5	53,9	131,6	64,5	271.732
AEB	-39,9	20,6	42,1	67,6	187,2	522,9	570.838
ELGAtik kanpokoak	-28,4	48,8	76,2	93,1	56,5	56,8	2.660.856

Iturria: Eustat.

Merkataritza harreman horiek guztiek 1.285 milioi euroko merkataritza saldoa utzi dute EAEko enpresen alde. Aurreko lau hiruhilekoetan lortutako kopurua baino handiagoa da oraingoa, baina urrun dago beste hiruhileko batzuetan lortutako saldoetatik. Alde batetik, saldo energetikoa oso negatiboa izan zen (-1.569 milioi euro), neurri batean produktu energetikoez izan duten garestitzearen ondorioz. Bestetik, saldo ez-energetikoa 2.854 milioi eurora iritsi zen, hiruhileko batean lortu den kopururik handiena. Ohi bezala, herrialde garatuekiko merkataritza harremanetan lortzen da aldeko saldoa (2.556 milioi euro), eta defizita dago garapen bidean dauden herrialdeekin (-1.271 milioi euro). Azken herrialde horien artean, Txina (-346 milioi), Brasil (-301 milioi) eta Errusia (-102 milioi) aipatu behar dira.

## Prezioak, soldatak eta kostuak

Aurreko hiruhilekoan bezala, Ukrainaren eta Errusiaren arteko gatazka belikoak prezioak aztertzen dituzten adierazle guztien bilakaera baldintzatu zuen. Horrela, eta BPGaren deflatorearekin hasita, honek historikoki oso altuak diren balioetan jarraitu zuen, nahiz eta pixka bat murriztu, aurreko hiruhilekoko %4,6tik bigarren hiruhilekoko %3,5era igaro baitzen.

Beste aldetik, KPI indizeak nabarmen gora egiten jarraitu zuen azken hilabeteetan, energiaren eta elikagaien prezioen igoera nabarmenaren ondorioz. Igoera hori areagotu egin zen, Ukrainako gerraren ondorioz, merkataritzako disrupzioek eta materialen urritasunak eraginda. Era berean, prezioek garestitze nabarmenak pairatu zituzten eskaintzan botila lepoak berriro agertu zirelako eta barne eskaria suspertu zelako, igoera hori areagotuz eta gainerako ondasunetara orokortuz.

Hala ere, Espainiako Gobernuak neurri berriak onartu zituenenez, prezioen gorakada moteldu egin zen neurri batean. Alde batetik, abenduaren 31ra arte luzatu da erregai litro bakoitzeko 20 zentimoko hobaria erabiltzaile guztientzat, eta berriki jaitsi da gas naturalaren BEZa %21etik %5era. Bestalde, familia ahulenei zuzendutako neurri berriak onartu dira, hala nola 2021ean 14.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten langileei edo langabezia dauden pertsonen 200 euroko ordainketa bakarra egitea, garraio publikoan deskontuak egitea eta alarguntza eta erretiro pentsio ez-kontributiboak %15 handitzea.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2020	2021	2022			Ekarpena
			I	II	Abuztua	
Inflazio osoa (%100)	-0,1	3,1	7,6	8,6	10,3	10,3
Azpiko inflazioa (%79,5)	0,8	1,0	3,1	4,8	6,4	5,1
- Elikagai landuak (%15,8)	1,7	1,4	5,0	8,8	12,6	2,0
- Industria ondasunak (%22,7)	0,3	1,0	3,7	4,2	5,8	1,3
- Zerbitzuak (%41,0)	0,8	0,7	1,9	3,5	4,3	1,8
Hondar inflazioa (%20,5)	-4,0	12,1	26,4	23,6	25,8	5,2
- Landu gabeko elikagaiak (%9,3)	4,0	2,6	6,0	11,1	12,7	1,1
- Energia (%11,2)	-9,4	21,3	45,7	34,3	37,0	4,1

Iturria: INE.

Zehazkiago adierazita, KPIak gora egiten jarraitu zuen bi digituko zifretan, baina abuztuan, datuak ditugun azken aldian, bi hamarren murriztu zen eta %10,3an kokatu zen. Moteltze txiki horren atzean petrolioaren prezioaren bilakaera egon zen nagusiki, urte hasieratik minimoetara jaitsi baitzen, upelak 90 dolar baino gutxiago erregistratu baitzuten. Hain zuzen ere, petrolio gordina, upeleko 140 dolar inguruko balioa izan baitzuen, %30 baino gehiago merkatu zen, ekonomiaren geldialdia hasi ondoren.

Lehen ere adierazi den bezala, elikagaien prezioek, elikadura lehengaien garestitzeak bultzatuta, eta energiakoek eragin zuten gehien inflazioaren gorakadan, oraindik ere gasaren eta argindarraren handizkako prezioak oso altuak baitira, eta prezio horiek, batez ere, arriskuak pairatzen dituzte eskaintzaren aldetik, nahiz eta azkenaldian arrisku horiek zertxobait gutxitu ziren.

Horiek horrela izanda, lehengaiak erregistro txikiagoak markatu zituzten eskaria murriztu eta eskaintza handitu ahala. Horri guztiari interes tasen igoeraren eragina gehitzen bazaio, soldata igoeren zurrumbilrik erregistratu ez izateaz gain, emaitza da inflazio igurikimenak, Ukrainako gerra gogortu ezean, moteltzen joatea espero dela, hazkunde egonkorrago batera itzuliko diren prezioekin.

Energiaren kostuen hazkunde luzea gero eta nabarmenagoa igarotzen ari da gainontzeko ondasun eta zerbitzuetara, eta hori egiaztatzen du azpiko inflazioaren azken erregistroak, abuztuan %6,4koa izan baitzen, hamarkada askotako baliorik handiena. Adierazle horren osagaien artean, guztiak aurreko aldiekin alderatuta igoerak izan zituzten arren, inflaziogileena prestatutako elikagaiak izan ziren. Talde horretan sartzen diren produktuek energia kantitate handia behar dute horiek egiteko, baina, horrez gain, kalte negatiboa jasan zuten garraio kostuen gorakadaren ondorioz.

Inflazioaren elementu gorabeheratsuenak ere ez ziren igoera orokor horren salbuespen izan. Alde batetik, landu gabeko elikagaiek goranzko joerarekin jarraitu zuten, lehen aipatutako arrazoiengatik, gainerako elikagaiekin batera inflazioari hiru puntu baino gehiago ekarriz, eta bestetik, energiak erregistro altuak izan zituen, baina azken hilabeteetan baino txikiagoak, petrolioaren prezioaren beheranzko bilakaerak lagunduta.

Aurreko hilabeteetan bezala, etxebizitza, garraioa eta elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak izan ziren inflazioak aldakuntza tasa handiak izatea gehien eragin zuten taldeak. Garraioak, aipatutako gainerako taldeek ez bezala, bere erregistroak murriztu zituen, petrolioaren jaitsieraren ondorioz erregaien eta lubrifikatzaileen prezioek behera egin zutelako. Beste aldetik, etxebizitza izan zen inflazio handiena izan zuena, elektrizitatearen prezioen igoeraren



ondorioz; elikagaien taldea, berriz, ia hirukoiztu egin zen aurreko urteko itxierakoen aldean, eta hamar hilabetez jarraian igo zen.

Industriako ondasunen kontsumo prezioen gainera begi bistako presioek maila altuetan jarraitu zuten, nahiz eta kurbak behera egiten hasi den, hiru hilabetez jarraian beherantz eginez, energiaren prezioak geldiarazteko gobernuak hartu dituen neurrien testuinguruan, maiatzean serie historiko osoko erregistrorik altuena erregistratu ondoren (%29,6). Azken hilabeteetan bezala, igoerak handiak izan ziren prezioak eratzeko prozesuaren lehen faseetan eta ondorengo faseetan ere.

## EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021		2022		
			III	IV	I	II	Abuztua
<b>Indize orokorra</b>	<b>-0,1</b>	<b>3,1</b>	<b>3,4</b>	<b>5,5</b>	<b>7,6</b>	<b>8,6</b>	<b>10,3</b>
Janariak eta alkohol gabeko edariak	2,8	2,0	2,0	2,9	5,7	10,3	13,5
Edari alkoholduak eta tabakoa	0,2	0,4	-0,1	1,2	2,5	4,4	5,1
Jantziak eta oinetakoak	1,0	1,0	1,1	1,0	3,9	2,8	4,5
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	-3,3	11,3	11,9	20,7	26,8	18,7	25,9
Etxeko hornidura	0,5	1,9	2,1	2,8	4,6	6,0	7,4
Medikuntza	0,5	0,8	0,8	1,3	0,8	0,3	0,6
Garraioa	-3,6	7,3	8,6	11,6	13,4	14,3	10,5
Komunikazioak	-1,1	-2,9	-2,9	-0,3	-0,6	-0,2	-2,2
Aisia eta kultura	-1,0	-0,1	-0,6	1,6	1,3	3,4	4,9
Irakaskuntza	1,1	0,9	0,8	1,7	1,5	1,5	1,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,2	1,2	1,4	2,0	3,2	6,2	7,4
Besteak	0,9	1,3	2,0	2,2	3,0	3,4	4,3

Iturria: INE.

Soldaten negozioari dagokionez, soldata igoerak aurreko aldietan baino handiagoak izan ziren arren, KPIaren eta igoera horien arteko diferentziala gero eta handiagoa izan zen, eta, ondorioz, erosteko ahalmena galdu zen. Era berean, hitzarmena indarrean duten langile askok, 2022an aplikatu beharreko soldata igoerak kalkulatzeko erreferentzia gisa KPIa kontuan hartzen badute ere, muga bat dute. Hau da, egungo inflazio mailak mantentzen badira, ez dute prezioen igoera guztia eskuratuko.

## HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

### Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2020	2021	2022 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,9	2,0	1,7	1,2	3,7
- Urtean zehar sinatutakoak	2,2	2,3	1,2	1,1	3,3
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,0	2,1	1,7	1,0	3,6
- Enpresako hitzarmenak	1,6	1,8	1,7	1,9	4,2

(\*) 2022ko uztaila arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## LAN KOSTUAK

### Urte arteko aldakuntza tasak

	2020	2021	2021			2022	
			II	III	IV	I	II
Lan kostu guztiak langileko	-1,1	4,9	8,9	4,5	3,4	2,1	1,5
- Soldata kostua guztira	-1,9	4,9	9,6	4,0	3,8	2,5	1,5
- Bestelako kostuak	1,1	4,8	7,3	5,9	2,2	0,8	1,4
Lan kostu guztiak orduko	5,9	-2,4	-9,0	-2,9	0,3	-0,5	-1,1
- Soldata kostua guztira	5,0	-2,4	-8,5	-3,4	0,7	0,0	-1,0
- Bestelako kostuak	8,4	-2,6	-10,4	-1,7	-0,9	-1,8	-1,2
Adostutako lan orduak	-0,4	1,5	1,4	1,3	1,4	-0,1	-1,0
Benetan lan egindako orduak	-6,8	7,2	19,8	7,5	3,0	2,5	2,6

Iturria: INE.

Azkenik, lan kostuek erakusten ari ziren moteltzeko joera berretsi zuten, laugarren hiruhilekoz jarraian. Zehatz-mehatz adierazita, EAEko guztizko lan kostuak %1,5 handitu ziren aurtengo bigarren hiruhilekoan, 2021eko hiruhileko berarekin alderatuta, Estatuko batez besteko gorakadaren oso azpitik (%3,8) dagoelarik. Era berean, orduko lan kostuak beheranzko balioak aurkeztu zituen, eta osagai guztiek balio negatiboak izan zituzten; izan ere, benetan egindako lanaldia 2021. urte hasierakoa bezain luzea izan ez bazen ere, oraindik aldakuntza tasa positiboetan jarraitu zuen.

## Arlo publikoa

Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ogasunek 10.631 milioi euro bildu zituzten abuztura arte, inflazioaren igoera nabarmenean oinarrituta. Kopuru horrek esan nahi du %9,5eko hazkundera eskuratu dela ekitaldiaren erdialderako, urte osorako %4,6ko aurreikuspenaren aldean. Joera horri eutsiz gero, ogasunek hasieran kalkulaturakoa baino likidezia handiagoa izango dute aurten, 16.290 milioi euro zehazki, pandemiaren aurreko goranzko bidea berreskuratuz. Diru bilketa are handiagoa izan zitekeen BEZaren itzulketak hain nabarmen igo ez balira, esportazioen martxa onaren ondorioz.

Era berean, Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek zerga alorrean neurri garrantzitsuak adostu zituzten, 250 milioi euroko ahalegin fiskala ekarriko dutenak, inflazioaren ondorioak arintzen saiatzeko, eta akordio horiek diru bilketan eragina izango dute. Hala eta guztiz ere, neurri horiek ez dute diru bilketan eraginik izango irailera arte. Hain zuzen ere, ekitaldi honetarako PFEZaren tarifaren tarte guztiak %5,5 deflatatuko dira, baterako tributazioaren ondoriozko murrizketaren zenbatekoak eguneratuko dira, kuota gutxituko da, kenkariak %4ko portzentajearen eguneratuko dira eta irailetik aurrera lan etekinei aplikatu beharreko atxikipenen taula egokituko da.

Neurri horiek gorabehera, PFEZk igoera nabarmenak izan zituen berriz ere (%6,8). Beste behin ere, hazkundera eragin zuten arrazoiak enplegua sortzea eta batez besteko soldata eta tasa efektiboa igotzea izan ziren, nahiz eta igoera neurritsuagoa izan. Era berean, gainerako kapituluei dagokienez, kapital higigarriaren eta inbertsio funtsen gaineko atxikipenek erritmo positiboan eboluzionatzen jarraitu zuten.

PFEZ bezala, zuzeneko beste zerga nagusia, hau da, sozietateen gaineko zerga, %25,9 azpimarragarria handitu zen. Erregistratu ziren itzulketa eskaera txikiagoak izan ziren eta hazkunde erritmoa zertxobait motelagoa izan zen. BI arrazoi horiek azaldu zuten ia osorik zerga horren diru sarreren hazkundera abuztura arte.

Diru bilketaren eragile nagusia BEZ zerga (%13,4) izan zen, hainbat faktorek lagunduta. Horien artean, inflazio handiaren eta kontsumoaren dinamismo handiaren ondorioz prezioek izan zuten gorakada nabarmentzen da. Prezioen igoera horrek zuzenean eragiten dio zerga horren diru bilketari, eta, gainera, udan hazten jarraitu zuen kontsumoak laguntzen du, turismoak eta familiek oraindik duten soberakinak eraginda, pandemiaren bi urteren ondoren. Hori guztia, nahiz eta, lehen ere adierazi den bezala, itzulketen eskaerek nabarmen egin zuten gora, eta galera handia gertatu zen etxeetako kontsumo elektrikoan tasa jaitsi zelako.

## TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-abuztua)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2021	2022	% Var. 22/21
PFEZ	3.814.028	4.074.914	6,8
Sozietateen gaineko zerga	852.131	1.072.579	25,9
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	30.755	50.372	63,8
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	123.062	103.675	-15,8
Ondarearen gaineko zerga	169.131	167.298	-1,1
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.	27.533	28.835	4,7
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	12.723	308	-97,6
<b>ZUZENKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>5.029.363</b>	<b>5.497.981</b>	<b>9,3</b>
BEZaren bertoko kudeaketa	3.608.281	4.092.150	13,4
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	121.894	124.950	2,5
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	27.385	32.330	18,1
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	16.850	16.126	-2,7
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	771.667	723.136	-6,3
Aseguru sarien gaineko zerga	62.976	69.651	10,6
Joko jardueren gaineko zergak	5.258	3.332	-36,6
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	2.114	2.206	1,4
Iraungitako zergak	-82	-3	96,7
<b>ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA</b>	<b>4.616.072</b>	<b>5.066.603</b>	<b>9,8</b>
<b>TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>63.168</b>	<b>66.378</b>	<b>5,1</b>
<b>TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA</b>	<b>9.708.603</b>	<b>10.630.962</b>	<b>9,5</b>

Iturria: Foru aldundiak.

Azkenik, zerga berezien diru bilketa jaitsi egin zen (-%6,3), batez ere argindarraren gaineko zergan izandako jaitsieragatik (-%74,5), faktura elektrikoa geldiarazteko Espainiako gobernua onartutako neurrien ondorioz. Aitzitik, hidrokarburoen gaineko zergak, erregistrorik garrantzitsuenak markatzen jarraitu zuen (%6,2), gasolinaren salmenta prezio altuetan oinarrituta, tabako laboreen gaineko zergak bezala, hilabeteak aldakuntza tasa positiboak kateatzen jarraitu baitzuen. Azkenik, alkoholaren gaineko zergak hazkunde-zifra negatiboak izan zituen (-%12,2); izan ere, alderaketa ostalaritzaren eta jatetxeen murrizketak hain zorrotzak izan ez ziren hilabeteekin egiten da.

## Arlo finantzarioa

Ekainean eta uztailean, finantza merkatuek ziurgabetasun eta hegakortasun handiko egoera batean jarraitu zuten. Ukrainako gerrak bere horretan jarraitu arren, munduko ekonomiaren moteltze eta ahultasun zantzuak eta inflazio handia izan ziren inbertsiogileen kezka nagusiak, eta haien itxaropenak eta sentimendua okertzen joan ziren hilabetez hilabete, eta, aldi berean, haien ezkortasuna handitzen joan zen. Aurreko guztiari gehitu behar zaio abuztutik aurrera krisi energetikoaren areagotzea erantsi behar izan zitzaizkion, Errusiak Europari gas horniketa etetearen ondorioz. Horrek guztiak shock negatiboa eragin zuen merkatuetan, euroa azken hogeitazko minimoetara eraman zuena eta burtsak hondoratu zituen, tasa subiranoez gora egin zuten bitartean.

Koiuntura horren aurrean, banku zentralak zeregin erabakigarria jokatu zuten berriro ere. Europako Banku Zentralak (EBZ) tasa negatiboak alde batera utzi zituen inflazioaren zurrunbiloa geldiarazten saiatzeko, zor periferikoari eta euroaren ahultze larriari laguntza emateko, dolarrarekiko parekotasunaren atarian baitzegoen. Zehatzago azalduta, aztertutako aldian, erakunde horrek interes tasen bi igoera egin zituen. Lehenengoa uztailean, oinarrizko 50 puntukoa, eta bestea oinarrizko 75 puntukoa irailean, inoizko handiena. Horrek %1,25ean ezartzen du erreferentzia tasa; gordailuetarako erraztasuna, berriz, %0,75era igo zen, eta kreditu erraztasun marjinala %1,5era. Era berean, interes tasak igotzen jarraituko duela aurreratu zuen, bere zor APP programaren epemugen berrinbertsio osoari eutsiko diola interes-tasen igoeraren ondoren denbora luzez, eta pandemiaren aurkako PEPP programarekin eskuratutako zorra berrinbertitzen jarraituko duela, gutxienez 2024aren amaierara arte eta malgutasun osoz, arrisku sarien tentsioari aurre egiteko neurri gisa.

Europako politikaren aldaketa garrantzitsu hori ez zen soilik prezioen igoeran oinarritu, baizik eta Erreserba Federalak inflazioaren aurkako borrokan zuen irimotasunak EBZri tasak igotzeko presioa ere egin zion, euroak dolarraren aurrean duen ahuleziari aurre egiteko ahaleginean. Zehatz-mehatz adierazita, ekainean, uztailean eta irailean, Erreserba Federalak oinarrizko 75 puntuko hiru igoera egin zituen jarraian, AEBetako erreferentzia tasa %3,0 eta %3,25 artean kokatzeraino, hau da, herrialdeak 2008ko urtarriletik erregistratutako diruaren preziorik handiena.

Ingalaterrako Bankuak, bestalde, bat egin zuen Europako eta munduko gainerako erregulatzaileek azken krisiaren ondorioz izan dituzten erreakzioekin, eta 50 oinarrizko puntu igo zuen abuztuan eta irailean erreferentzia tasa, %2,25era igoz.

Ziurgabetasun handiagoak, mendebaldeko finantzaziorako baldintzen gogortzeak eta inflazioaren presioen gorakadak, mundu mailan, azaleratzen ari diren herrialdeekiko inbertsiogileen interesa ahultzen jarraitu zuten; izan ere, irailean, bosgarren hilabetez jarraian, kapitaleko irteera garbia izan zuten. Erantzun gisa, herrialde batzuetako banku zentralek tasa ofizialak berriro igotzea onartu zituzten.

Salbuespenak Japoniako Bankuaren, Errusiako Banku Zentralaren eta Txinako Banku Popularraren eskutik etorri ziren. Lehenak bere moneta politika ultralaxoari eutsi zion, eta horrek yenaren salmenta handia eragin zuen eta moneta politikako arduradunen perspektibak zaildu zituen. Bigarrenak hiru murrizketa gehiago egin zituen udako hilabeteetan, sei aurten, bere esku hartzeko interes tasa %7,5ean kokatzeraino. Ondorioz, Errusiak Ukraina inbaditu zuenean otsailean onartutako larrialdiko igoseraren (%9,5etik %20,0ra) aurretik ezarritako mailaren azpitik kokatu zen. Txinako Banku Popularrak, azkenik, bost urterako kredituetarako tasa jaistera erabaki zuen, hori baita hipoteka maileguetarako erreferentzia.

#### ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (I)

	2020	2021	2022					
			Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuzt.	Iraila
<b>Interes tasa ofizialak (%)</b>								
Europako Banku	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,5	0,5	1,25
Erreserba Federala	0,25-0,0	0,25-0,0	0,5-0,25	0,75-1,0	1,5-1,75	2,0-2,25	2,0-2,25	3-3,25
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,10	0,25	0,75	1,0	1,25	1,25	1,75	2,25
Txinako Banku Popularrak	3,85	3,80	3,70	3,70	3,70	3,70	3,65	3,65
Brasilgo Banku Zentr.	2,00	9,25	11,75	11,75	12,75	13,25	13,75	13,75
<b>10 urteko zor publikoaren</b>								
Alemania	0	0	0	0	0	0	0	0
Espainia	63	77	104	111	109	111	120	118
Grezia	120	149	240	245	225	217	257	272
Erresuma Batua	77	115	97	98	109	103	111	107
Italia	110	136	184	201	203	233	235	240
AEB	149	168	195	172	161	182	160	169

Iturria: Espainiako Bankua.

Banku zentralek egin zituzten mugimendu horien ondorioz, eta inflazio igurikimenak eta, ondorioz, diru merkatuen tasa implizituak gorantz doitu zirenez, tasa subiranoek gorakada garrantzitsua ezagutu zuten, eta hori konstante bihurtu da aurten. Zehatzago esanda, AEBetako

10 urterako bonuaren errendimendua %4,0 ingurukoa izan zen irailaren amaieran, 2010eko martxotik ikusi gabeko maila baita.

Tasen igoerek ekonomian izango duten eraginari buruzko ziurgabetasunak eta urtearen amaieran atzeraldian murgiltzeko aukerak Europako zor subiranoa ere tenkatu zuen. Horrela, 10 urterako muga eguna duen Espainiako bonuaren errentagarritasuna %3,39koa izan zen irailaren amaieran (2014ko martxotik ezagutzen ez zen maila), Alemaniako bund-aren %2,21aren aldean. Horrek esan nahi du Espainiako 10 urterako bonuaren diferentzialak, Alemaniako bonu baliokidearen aldean (arrisku saria), azkartu egin duela igoera azken asteetan, oinarrizko 120 puntu ingurura iritsi arte, urtarrileko 70 oinarrizko puntuetatik oso urrun. Espainiako arrisku sariaz gain, Italiako bund eta bonuaren arteko diferentziala oinarrizko 240 puntuen gainetik egon zen, barne krisi politikoak bultzatuta, eta Greziako bonoari dagokionez, berriz, arrisku prima oinarrizko 270 puntutik gorakoa izan zen.

## ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK (II)

	2020	2021	2022					
			Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuzt.	Iraila
<b>Truke tasak</b>								
Dolarra/euro	1,141	1,184	1,082	1,058	1,057	1,018	1,013	0,990
Yena/euro	121,8	129,9	136,6	136,2	141,6	139,2	136,9	141,6
Libera esterlina/euro	0,889	0,860	0,837	0,850	0,858	0,850	0,845	0,875
Yena/dolarra	106,8	109,8	126,2	128,8	134,0	136,7	135,1	143,0
€ efektibo nomin.(%)	99,7	99,7	95,2	95,6	95,9	94,1	93,6	93,9
<b>Burtsa indizeak (*)</b>								
IBEX35	-15,5	7,9	-1,5	1,6	-7,1	-6,4	-9,5	-15,5
Eurostoxx-50	-5,1	21,0	-11,5	-13,2	-19,6	-13,7	-18,2	-22,8
Dow Jones	7,2	18,7	-9,2	-9,0	-15,3	-9,6	-13,3	-20,9
Nikkei 225	16,0	4,9	-6,8	-6,9	-8,3	-3,4	-2,4	-9,0
Standard & Poors	16,3	26,9	-13,3	-12,8	-20,6	-13,3	-17,0	-24,8

(\*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.

Iturria: Espainiako Bankua.

Bestalde, nazioarteko burtsek ikusi zuten zorraren eta dibisen merkatuetako zurrumbilok areagotu egin zutela tasen igoerek eta atzeraldian arriskuek sortutako tentsioa, eta,aldi berean, Europa gasez hornitzeko arazoak mehatxu gehigarri bat izan zirela Europako ekonomiarentzat. Halaber, lehengaien prezioek maila altuetan jarraitzen zutenez, kotizatutako enpresa askok hurrengo hiruhilekoetan marjinek okerrera egin zezaketela ohartarazi zuten.

Horrek guztiak eragin negatiboa izan zuen burtsako indize nagusietan, abuztuan eta irailean nabarmen jaitsi baitziren, uztailleko irabaziak irauliz. Zehazkiago azalduta, Alemaniako Dax indizeak %23,74ko beherakada izan zuen irailera arte, Frantziako CAC-ek, berriz, %19,44koa, eta Britainia Handiko Ftse-ak, jadanik 7.000 puntuetatik beherago baitago, %6,65ekoa. Atlantikoaren beste aldean bilakaera ez zen hobea izan. Izan ere, S&P 500 indizearen kasuan, indizeak 1970etik izandako seihileko txarrena ezagutu zuen, urtearen hasieratik %25aren inguruko beherakada metatu baitzuen, eta Dow Jones indizeak, berriz, %20,9ko galerak izan zituen.

Ibex-35ari dagokionez, Espainiako Burtsak bere beheranzko norabidea handitu zuen. Espainiako KPIa %10,5etik %9ra jaitsi izanak ere (iraileko KPI aurreratuak horixe adierazten du) ez zuen inbertitzaileen gogoia hobetu. Hori horrela, iraila amaitu zen unean, Espainiako indizeak 7.300 puntuak galtzeko beldurra izan zuen, 2020ko azarotik minimo berri bat baita, eta %15,5eko galerak metatu ditu.

Dibisen merkatuari dagokionez, ziurgabetasun handiak eta Fed-ek moneta politika azkar normalizatu izanak euskarri handiagoa eman zioten dolarrari, moneta nagusien aldean. Alderaketa honetan kaltetuena moneta bakarra izan zen, irailaren 14tik aurrera parekotasunaren azpitik kotizatzen baitu. 2002ko otsailera jo behar da hain kotizazio baxuak aurkitzeko. Gas hornidurarekiko kezka eta euroaren eremuan atzeraldia izateko arriskua areagotzen ari dela adierazten duten aurreikuspenak alde batera utzita, parekotasunaren galera horrek zerikusi handiagoa du dolarraren balio irabaziarekin euroaren beherakadarekin baino. Zehatzago esanda, euroa 0,947 dolarreraino jaitsi zen euro bakoitzeko irailaren 30ean, hau da, moneta bakarrak %13,9ko balio galera metatua izan zuen dolarrarekiko. Euroa ahuldu egin zen garatzeko bidean dauden ekonomia gehien txanponekin alderatuta ere, hala nola Indiako rupiarekin (%5,5) eta Txinako renminbiarekin (%3,8).

Liberak, azkenik, behera egin zuen euroaren eta dolarraren aurrean, Britainia Handiko gobernuak errentaren gaineko zergaren tarterik altuena (%45etik %40ra) jaitsiko zuela adierazi ondoren, tarterik txikiena puntu bat murriztuko du eta sozietateen gaineko zerga igoko du, besteak beste. Dolarrari dagokionez, parekotasuna lortzeko beldurra izan zen, eta euroaren aldean, berriz, ez zen hain depreziatua izan.


Euriborrak, bere aldetik, goranzko bideari eutsi zion eta iraila %2,239ko batez besteko balioarekin itxi zuen, nahiz eta iraileko azken egunean %2,556raino igo zen. Horrek esan nahi du historiako hilabete arteko hazkunderik handiena izan dela, abuztuan %1,249an itxi ondoren. Inoiz ez da hainbeste igo hilabete batean, ezta urtebetean ere. Izan ere, Euriborren urteko hazkundeak ere marka historiko berria ezarri du, %554 igo baita 2021eko irailean erregistratu zen -%0,492tik. Gorakada berri horrekin, Euriborrak interbentzio tasaren (%1,25) bikoitza




markatzen du, gutxi gorabehera, eta bankuek uste dute euroaren gainbegiralea motz geratu dela eta tasak handitzen jarraituko duela.

### Etxebizitzen hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)



Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

Hipoteken merkatuari dagokionez, etxebizitzen salmentak gora egin zuen berriro apirila eta ekaina bitartean. INEk argitaratu dituen datuen arabera, aurtengo bigarren hiru hilekoan 6.177 hipoteka sinatu ziren EAEn, 2021eko aldi berean formalizatutakoak baino %12,4 gehiago. 2011ko lehen hiru hilekotik ez zen hainbeste eragiketa erregistratu, nahiz eta estatistikaren arabera kopuruak 2006an sinatutako eragiketen erdia inguru suposatzen duen, Atzeraldi Handia lehertu aurretik, alegia.

Hala eta guztiz ere, uztailen goranzko joera hori irauli egin da eta hipoteken kopurua %5,3 jaitsi zen. Hurrengo hilabeteetako datuen zain egon beharko da, beherakada hori puntuala izan ote den edo ingurunearen ezegonkortasunak eta euriborraren hazkunde handiak etxebizitzen salmenta oztopatzen duen baloratzeko. Adituek uste dute higiezinaren sektorea une zailean sar daitekeela hilabete batzuk barru, baina ez dramatikoak. Hala ere, nahiz eta Errusiaren eta Ukrainaren arteko gatazkarekin gertatzen denaren eta egoera makroekonomikoaren arabera izan, ikusi behar da une hartan bankuek oso erraz ematen zituztela hipotekak, eta gaur egun hipoteka bat emateko eskatzen zaien kaudimena askoz handiagoa dela hasieratik, eta, beraz, eragin txikiagoa izango duela.

## KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2020	2021	2021		2022			Aldea 2008-IV eta 2022-II	
			III	IV	I	II	II	Milioi €	Tasa
<b>Kredituak</b>	<b>2,4</b>	<b>0,1</b>	<b>-0,9</b>	<b>0,1</b>	<b>0,3</b>	<b>0,9</b>	<b>72.629</b>	<b>-14.791</b>	<b>-16,9</b>
Arlo publikoa	7,0	15,8	10,6	15,8	11,7	7,6	10.209	8.181	403,3
Arlo pribatua	1,8	-1,9	-2,6	-1,9	-1,3	-0,1	62.420	-22.970	-26,9
<b>Gordailuak</b>	<b>5,7</b>	<b>4,7</b>	<b>6,3</b>	<b>4,7</b>	<b>5,6</b>	<b>3,3</b>	<b>98.424</b>	<b>22.081</b>	<b>28,9</b>
Arlo publikoa	27,1	53,1	53,7	53,1	50,2	23,4	8.749	3.016	52,6
Arlo pribatua	4,4	1,2	3,3	1,2	2,6	1,7	89.675	19.065	27,0
Agerikoak	9,0	5,1	7,5	5,1	6,3	4,7	83.017	56.030	207,6
Eperakoak	-20,1	-26,6	-24,4	-26,6	-26,9	-25,9	6.658	-36.965	-84,7

Iturria: Espainiako Bankua.

Datu horien ildotik, Espainiako Bankuak uztailan argitaratu zuen banku maileguren inkestak erakusten du etxebizitza erosteko eta kontsumorako funtsen eskariak gora egiten jarraitu zuela apirila eta ekaina bitartean, baina aurreko hiruhilekoetan baino modu apalagoan. Bilakaera hori, banketxeen arabera, etxebizitzaren merkatuaren egoera positiboaren eta interes tasen maila apalari lotutako inpaktu positiboaren ondorio izango litzateke, oraindik ez bailukete jasoko kreditu horien erreferentzia tasen hazkundera. Hala, kreditu pribatua 1.633 milioi euro hazi zen aurreko hiruhilekoaren aldean, baina urte arteko tasak hazkunde negatiboa izan zuen (-%0,1). Urteko hirugarren hiruhilekorako, finantza erakundeek aurreratu dute etxebizitza erosteko maileguak emateko irizpideak gogortu egingo direla berriro, apur bat bada ere, eta eskaria nabarmen murriztuko dela aurreikusi dute.

Gordailuei dagokienez, etengabeko ezegonkortasunaren eta arriskuarekiko ezinikusiaren ondorioz, inbertitzaileek aktibo seguruagoetan inbertitzearen alde egin zuten. Horrela, gordailuak 100.000 milioi eurora hurbildu ziren, aurrekaririk gabeko mailara. Beste behin ere, ageriko gordailu pribatuek metatu zuten zenbatekorik handiena; eperako gordailu pribatuek, berriz, 6.600 milioi euro baino ez zituzten gainditu. 1989ko bigarren hiruhilekora arte egin behar da atzera, antzeko kopuru bat lortzeko.

## Aurreikuspenak

Aurtengo bigarren hiruhilekoan zehar, hainbat shockek astindu dute pandemiak jadanik ahuldu zuen munduko ekonomia. Lehenik eta behin, aurreikusitakoa baino inflazio handiagoa hedatu zen mundu osora. Ekonomia askotan, 2022ko lehen erdian inflazioa altuena izan da 80ko hamarkadatik, batez ere AEBetan eta Europako ekonomia nagusietan, eta finantzaziorako baldintzen gogortzea eragin du. Bigarrenik, aurreikusitakoa baino moteltze ekonomiko handiagoa Txinan, covid-19aren agerraldien eta konfinamenduen ondorioz, bai eta higiezin merkatuaren ahuleziaren ondorioz ere. Eta hirugarrenik, Ukrainan bizi den gerra, hazkundera oztopatzen eta prezioen gaineko presio gehigarri bat egiten ari baita, batez ere elikagaien eta energiaren kasuan, eta enpresen eta familien konfiantzan eragiten ari baita.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2021	2022	2023	2021	2022	2023
Munduko ekonomia	5,8	3,0	2,2	--	--	--
AEB	5,7	1,5	0,5	3,9	6,2	3,4
Eurogunea	5,2	3,1	0,3	2,6	8,1	6,2
Alemania	2,6	1,2	-0,7	3,2	8,4	7,5
Frantzia	6,8	2,6	0,6	2,1	5,9	5,8
Italia	6,6	3,4	0,4	1,9	7,8	4,7
Espainia	5,5	4,4	1,5	3,1	9,1	5,0
Erresuma Batua	7,4	3,4	0,0	2,6	8,8	5,9
Kanada	4,5	3,4	1,5	3,4	6,9	4,5
Japonia	1,7	1,6	1,4	-0,2	2,2	2,0
Txina	8,1	3,2	4,7	0,8	2,2	3,1
India	8,7	6,9	5,7	5,6	6,7	5,9
Brasil	4,9	2,5	0,8	8,3	10,8	6,6

Iturria: ELGA (2022ko iraila).

Lan merkatuaren baldintza onak, herrialde askotan 20 urteko langabezia tasa txikiena jaso baita, soldatak gorantz bultzatzen ari dira, eta erosteko ahalmenaren eta hazkunde galera arintzen laguntzen. Hala eta guztiz ere, horrek ere eragiten du inflazioa eremu askotara zabaltzea. Orobat, banku zentral nagusien moneta politika gogortzeak gero eta eragin handiagoa duenez, inflazioa aurtengo hirugarren hiruhilekoan iritsiko dela bere puntu gorenera aurreikusten da, baina herrialde gehienetan laugarren hiruhilekoan eta 2023an zehar egingo duela behera espero

da. Hala ere, 2023an urteko inflazioa banku zentralen helburuen gainetik kokatuko da ia herrialde guztietan.

Horrela, badirudi bilakaera ekonomikoak hazkunde ekonomiko gutxiko eta inflazio handiko aldi batera garamatzala, 2023an bereziki nabarmena izango dena. Horren ondorioz, aurreikuspenak egiten dituzten erakunde ofizial nagusiek berrikuspen garrantzitsuak egin dituzte. Zehatzago esanda, ELGAK, iraileko txostenean, 2022ko munduko jarduera ekonomikoa %3,0an mantendu du, eta sei hamarren murriztu ditu, %2,2raino, 2023rako hazkunde aurreikuspenak.

Zehazki, euroaren eremua %3,1 haziko da 2022an, aurrez aurreikusitakoa baino bost hamarren gehiago, baina erritmoa %0,3raino murriztuko da 2023an. Erregaiaren eskasiak, gasarenak bereziki, 1,3 puntu murriztu dezake euroguneko hazkundera. Horri gehitu behar zaizkio inflazioaren krisia kontrolatzeko interes tasen igoerak, pandemiaren okerrenaren ondoren ekonomia berriz irekitzeak eragindako susperraldia lausotzen ari baitira. Europako Banku Zentralak, iraileko proiektioetan, 2022rako eurogunearen hazkundera %3,1ean finkatu du oinarrizko egoeran, eta %0,9ra mugatu du 2023an aurrera egitea. Hala ere, egoera txarrean, ez du baztertzen 2023an atzeraldi bat gertatzea, energiaren egoerak okerrera egiten badu eta Errusiak gas hornidura erabat mozten badu. Kasu horretan, eremuko BPG %2,8 haziko litzateke 2022an, eta -%0,9ra jaitsiko litzateke 2023an.

ELGaren azken aurreikuspenekin jarraituz, Alemania izango da kalte handiena jasango duena Errusiako gas horniduraren gabeziagatik, eta, aurten BPGa %1,2ra mugatu ondoren, atzeraldian sartuko da datorren urtean, 2,4 puntuko beheranzko berrikuspena izan baitu. Euroguneko ekonomia nagusiaren BPG %0,7 jaitsiko da. Frantziak eta Italiak ere zortzi hamarren egin dute behera 2023ko aurreikuspenean, baina hazkunde tasa positiboak izaten jarraituko dute.

AEBek ere, Fedek hartutako neurriak gorabehera, sufritu egingo dute Moskuk hasitako gatazkagatik eta inflazio handiagatik. Hain zuzen ere, bertako ekonomia %1,5 soilik haziko da aurten, duela hiru hilabete kalkulaturakoa baino puntu bat gutxiago, eta jarduera maila %0,5era jaitsiko du 2023an. Bestalde, ELGAK Txinarentzat ekainean aurreikusten zuen %4,4ko hazkundera %3,2ra murriztu da berrikuspen berriaren ondoren, eta 2023an %4,7ra mugatuko du hazkundera.

BPGaren beheranzko berrikuspenarekin batera inflazioaren goranzko berrikuspena egin da. Eurogunean, inflazioa batez beste %8,1ekoa izango da 2022an (1,1 puntu gehiago) eta %6,2koa datorren urtean (1,6 puntu gehiago). Espainiaren kasuan, ELGAK aurreikusi du aurten %9,1era iritsiko dela, ekaineko aurreikuspena baino puntu bat gorago, eta 2023an, berriz, %5,0koa izango dela, hamarren bat gehiago. Hala ere, Europako herrialde kalteturik handiena Alemania da berriz ere. ELGaren arabera, euroguneko ekonomia nagusiaren prezioen igoera %7,5ekoa izango da

datorren urtean, aurreko iragarpenaren aldean 2,8 puntu gehiago direlarik. Igoera handi horrek agertokirik ezkorrena irudikatzen du: inflazio iraunkorra, urte honetarako aurreikusitakoa (%8,4) baino apalagoa izango ez dena eta Europako Banku Zentrala moneta neurriak gogortzeko politikari luzaroago eustera behartuko lukeena. Aitzitik, interes tasen gorakada bortitzei esker, prezioen zurrumbilota moteltzen hasiko da AEBetan. ELGak hamarren batean murriztu du munduko ekonomiarik handienerako inflazio aurreikuspena, %3,4ra arte 2023an, aurtengo %6,2aren aldean.

Analisisa Espainiara begira jarrita, ELGak, bi urteetan murrizketak egin arren, uste du Espainiakoa izango dela Europako ekonomia handien artean gehien haziko dena 2022an eta 2023an. Zehazki, 2022rako %4,4ko hazkunde aurreikusten du, gobernuaren aurreikuspena hamarren batean gaituz, eta 2023ko BPGa %1,5ean finkatuz.

Ildo horretan, Cepredeko aurreikuspenak aurkeztu dira. 2022rako aurrekoaren antzeko agertokia erakusten duten arren, 2023. urterako beheranzko joera hartu dute. Izan ere, Ceperederen arabera, Espainiako ekonomia %4,7 haziko da 2022an, hots, ekainean aurreikusitakoa baino bi hamarren gutxiago, eta %2,0ra (sei hamarren beherago) jaitsi du 2023rako aurreikusitako hazkunde erritmoa. Prezioen igoera handiak kontsumo pribatuaren bilakaera beherantz baldintzatuko du, urtearen amaieran portaera okertuko baitu eta hurrengo ekitaldiaren zati handi batean luzatuko baita okertze hori. Funcasek aurkeztutako iraileko aurreikuspenen panelak Ceperdek erakutsitakoaren antzeko emaitza eman du. Kasu horretan, BPG %4,2 haziko da 2022an, eta, ondoren, %1,9ra apalduko da 2023an.

#### ESPAINIAKO EKONOMIARAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2022ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022		2022	2023				2023
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>4,4</b>	<b>1,9</b>	<b>4,7</b>	<b>2,1</b>	<b>1,8</b>	<b>1,7</b>	<b>2,2</b>	<b>2,0</b>
Kontsumo pribatua	2,9	1,3	3,1	3,4	1,2	1,3	1,9	2,0
Kontsumo publikoa	-1,6	0,7	-0,7	0,9	1,7	2,0	2,0	1,7
Kapital eraketa gordina	10,2	6,9	8,4	4,4	3,3	3,9	5,0	4,2
- Taldeko inbertsioa	12,1	5,6	11,5	-2,0	5,0	5,4	7,6	3,9
- Landatutako aktiboen	5,5	5,2	6,3	4,8	5,3	4,4	3,7	4,5
- Eraikuntzako inbertsioa	8,2	8,5	6,1	8,6	1,6	2,2	3,0	3,8
Barne-eskaria	3,3	2,2	3,3	3,1	2,0	2,2	2,7	2,5
Esportazioak	12,4	5,6	13,6	4,8	4,3	2,8	3,0	3,7
Inportazioak	9,4	6,8	9,6	7,7	4,6	3,9	3,7	5,0

Iturria: Ceperede.

Ingurunean gertatzen ari diren aldaketen ondorioz, 2022-2023 aldirako EAEko ekonomiarako aurreikuspenen berrikuspena egin behar izan da. Berrikuspena bereziki garrantzitsua da datorren urterako, baina urte honetarako aldaketa hamarren pare batera mugatu da. Izan ere, aurtengo lehen hiru hiruhilekoak igaro ondoren eta 2022ko lehen erdiko kontu ekonomikoak ezagututa, inguruan izan diren aldaketek eragin erlatiboki txikiagoa dute aurtengo aurreikuspenetan. Aurrekoaz gain, 2022ari buruzko Consensus Forecastseko panelean parte hartzen dutenen iritziak ia ez dira aldatu azken hilabeteetan, bai euroguneko hazkundeari dagokionez, bai Espainiakoari dagokionez. Horren ondorioz, EAEko ekonomiaren hazkundera aurtun %4,3koa izatea espero da, hiruhilekoko moteltze txiki bat ezagutuko da urtearen amaierara arte.

#### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2022ko iraila)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2022		2022	2023				2023
	III	IV		I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>3,9</b>	<b>2,4</b>	<b>4,3</b>	<b>2,2</b>	<b>1,7</b>	<b>1,7</b>	<b>2,8</b>	<b>2,1</b>
Azken kontsumoa	1,6	1,2	1,8	1,3	1,3	1,3	1,7	1,5
Kontsumo pribatua	2,5	2,0	2,7	1,3	1,1	1,2	1,7	1,4
Kontsumo publikoa	-1,4	-1,5	-1,4	1,4	1,9	1,8	1,5	1,7
Kapital eraketa gordina	5,1	4,3	4,8	3,3	2,4	2,5	3,3	2,9
Barne eskariaren ekarpena	2,5	2,0	2,5	1,8	1,6	1,6	2,1	1,8
Kanpo saldoaren ekarpena	1,5	0,4	1,8	0,3	0,1	0,1	0,7	0,3
Lehen arloa	-6,3	-7,3	-4,6	-0,2	-11,3	-4,5	-2,0	-4,7
Industria eta energia	5,2	2,9	5,2	1,4	0,3	-0,3	-0,5	0,2
Eraikuntza	1,6	1,8	1,7	1,6	2,9	3,3	3,1	2,7
Zerbitzuak	4,2	2,8	4,7	2,9	2,7	3,0	2,9	2,9
Balio erantsi gordina	4,2	2,7	4,6	2,4	2,0	2,2	2,1	2,2
Ekoizkinen gaineko zergak	2,3	1,6	2,8	1,9	1,7	1,6	1,4	1,6
BPG nominala	9,5	5,9	8,6	5,6	5,1	4,5	5,3	5,1
BPGaren deflatorea	5,3	3,5	4,2	3,4	3,5	2,9	2,5	3,0
Lanaldi osoko lanpostuak	1,5	1,0	2,7	1,0	1,0	1,0	1,8	1,2
Landunak (BJA)	1,2	1,4	2,0	0,7	0,9	0,8	1,1	0,9
Langabezia tasa	8,8	8,8	8,8	8,7	8,0	8,3	8,2	8,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.


Hala eta guztiz ere, 2023rako aurreikuspenek okerrera egin dute munduko ekonomiarentzat eta EAEko ekonomiaren ingurune hurbilarentzat ere. Lehen adierazi den bezala, ELGak munduko ekonomiarako aurreikuspenari eutsi dio aurten ere, baina 2023koa sei hamarrenetan berrikusi du beherantz. Orain, munduko ekonomia %2,2 handituko dela aurreikusten du. Berrikuspena garrantzitsua da euroaren eremuarentzat ere. Horren ondorioz, datorren urterako aurreikusitako EAEko ekonomiaren hazkundera beherantzko bi puntutan berrikusi da, lehengo %4,1etik egungo %2,1era. Halaber, arriskuek beherantz seinalatzen dute. Bereziki, inflazioaren ondoriozkoa. Agertoki makroekonomiko horretan, hipotesia da prezioak altu mantenduko direla aurten, baina datorren urtean zuzenketa esanguratsua lortuko dela eta BPGaren deflatorea %2,5era hurbilduko dela urtearen azken zatian. Gertaeren ondorioz prezioen igoerak iraunkorrak badira, ekonomian eragindako kaltea handiagoa izango da, eta eragile ekonomikoek are gehiago murriztuko dituzte gastatzeko erabakiak.

Beraz, inflazioa da gaur eguneko gakoetako bat, eta horregatik da garrantzitsua BPG nominalaren bilakaera ere azaltzea, hau da, BPGa unean uneko eurotan kalkulatuta. Egungo agertokiak aurreikusten du BPG nominala %8,6 haziko dela aurten, 2021ean lortu zen ia tasa bera, eta %5,1, berriz, datorren urtean, hazkunde erreal txikiagoagatik eta prezioen bilakaeraren kontrol nabarmenagatik.


### 2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (I)

#### Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskariaren analisiak adierazten du kanpoko eskariak EAEko BPGaren hazkunderari egiten dion ekarpen handia eta ezohikoa arindu egingo dela datozen hiruhilekoetan, inguruko ekonomiek izango duten bultzada txikiagoaren ondorioz, horiek baitira EAEko enpresen bezero nagusiak. Zentzu horretan, barne eskariak protagonismoa berreskuratuko du BPGaren osieran. Kontsumo

pribatuak hazkundera motelduko duela espero du, inflazio handiaren ondorioz erosteko ahalmena murriztuko delako eta eragile ekonomikoaren artean zabaldu den ziurgabetasunagatik. Hala eta guztiz ere, enpleguaren hazkundera agregatu makroekonomiko horren emaitza eremu positiboan mantentzen lagunduko du. Era berean, nazioarteko testuinguru zailak inbertsioko erabakiei eragingo die, nahiz eta hazkunde tasa nabarmenak aurreikusten diren kontuan hartutako aldi osorako.

Eskaintzaren ikuspegitik, industriak azken hiruhilekoetan izan dituen hazkunde erritmo sendoak alde batera utziko dituela aurreikusten da, eta ekonomiaren batez bestekotik beherako aldakuntza tasetan kokatuko da, datorren urteko bigarren erdian negatiboak izan daitezkeenak. Sektore honek Europako potentzia nagusiekin duen harreman estuak haien bilakaeraren mende jartzen du. Beste aldetik, zerbitzuek profil egonkorragoa izan ohi dute, merkaturatu ezin diren zerbitzuei gutxiago eragiten baitie une bakoitzeko koitunturak. Hala, aurtengo bigarren erdian apaltzeko fase bat izan ondoren, %2,9ko hazkundera espero da datorren urte osoan. Azkenik, 2023an eraikuntzarako gorakada bat aurreikusten da, sektoreak gaur egun bizi dituen trabak konponduz joango diren heinean.

Enpleguari dagokionez, egungo agertokiak langabezia tasaren murrizketa nabarmena aurreikusten du, aurten batez beste %8,8ra iritsiko dena eta datorren urtean %8,3ra jaitsiko dena. Langabeziaren murrizketa hori oraindik ere garrantzitsua den enplegu sorreran oinarritzen da, baina moteltzeko joera argia hautematen da jadanik, koiunturako datuek aurreikusten duten bezala. Oro har, enpleguak gora egingo duela espero da, lanaldi osoko lanpostuetan neurtuta: %2,7 aurten eta %1,2, berriz, datorren urtean. Tasa horien ondorioz, 26.000 lanpostu inguru sortuko dira aurten, eta 12.000 inguru datorren urtean. Aldi baterako lan erregulazioko egoeran dauden pertsonen irteerak enplegu teorikoaren zifra horiek BJAtik ondorioztatzen direnen antzekoak izatea ekarriko du, azken horiek pertsonetan oinarritzen baitira. Aurreikuspen berriaren arabera, aurten enplegua duten pertsonen kopurua %2,0 handituko da, eta datorren urtean %0,9 (19.000 eta 9.000 inguru).

Moneta politikaren aldaketa EAEko ekonomiarako aurreikuspenetan Euriborraren bidez sartzen da. Euriborra datozen hilabeteetan handituko dela espero da, baina 2023an egonkortu egingo da. Truke tasari dagokionez, printzipioz, euroaren eta dolarraren arteko parekotasunari eustearen alde egiten da, nahiz eta, batez ere, datorren urteko bigarren erdian Europako moneta indartu egingo den.


Eusko Jaurlaritzaren oraingo aurreikuspenak ezagutu diren EAEko ekonomiarako aurreikuspenen multzoaren erdialdean kokatzen dira. Hala ere, kontuan izan behar da horietako batzuek ez dituztela beren aurreikuspenak zuzendu egungo egoera ekonomikoaren argitan, eta, beraz, zaharkituta gera daitezkeela. 2022. urteari dagokionez, muturreko aurreikuspenak




Confebaskek abenduan egin zuenak (%5,9), eta BBVAk abuztuan eginikoak (%3,5) finkatzen dituzte. Bestalde, 2023ari dagokionez, ezkortasuna handiagoa da BBVAren abuztuko aurreikuspenean (%1,1), baina gainerako erakundeen aurreikuspenak %2,0aren eta %3,0aren artean kokatzen dira.

## 2022ko eta 2023ko aurreikuspenak (II) Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2022



Aurreikuspen panela 2023



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2022ko iraila), Ceprede (2022ko iraila), BBVA (2022ko abuztua), Laboral kutxa (2022ko ekaina), Confebask (2021eko abendua) eta Hispalink (2022ko apirila-BEGaren aldakuntza).